



Lau urteren ondoren, Eitzagako zauriek guztiz itxi barik jarraitzen dute

Zaldibar • Martitzenean lau urte beteko dira Eitzagako zabortegia behera etorri eta Euskal Herrian aspaldian egoniko krisialdi humano, politiko eta ekologikorik handiena gertatu zenetik. Zaldibar Argituk oroimen ekitaldia egingo du, domekan, Eitzagako plazan. • **2-3**



Abadiño San Blasetan

Abadiño • Abadiñon dena prest dute San Blas Azokak atek zabaltzeko bihar. Durangaldeko eta Euskal Herri osoko baserrietako ekoizpenaren erakusleho handia izango da. Egitarauaren barruan, Urdax Magunazelaia harri-jasotzaile abadiñarra inoiz jaso duen harririk astunena altxatzen ahalegingudo da. • **4**



Eliteko pedalkadak berriro Urkiola mendatean gora

Kirola • Itzuliko etapa bat Urkiolatik igaroko da, apirilaren 5ean. Profesionaletan, 12 urte joan dira gizonen azkeneko igo zutenetik; emakumeek 2018an igo zuten, Biran. • **27**



Ipuinetako pertsonaiak bizira, Mañariko karnabaletan

Mañaria • Errose Bustintzaren ipuin bat oinarri hartuta, herriarrek istorio propio bat sortu dute: Sasi-berezi deitzen da protagonista nagusia. • **8**



Aingeru Bernaola pilotari mañariarra maila ezin hobean

Pilota • 2023a Aingeru Bernaolaren urtea izan da pilotan. Mailari eusten dabil aurten ere. Lezamako txapelketako finalerdietan da. • **26**

DURANGO

HIZKUNTZA

ESKOLA

OFIZIALA

MATRIKULA LIBREA ZABALIK

Otsailaren 1etik 7ra (13:00ak arte)

EMAN IZENA
36,18€

Zubiaurra Kalea, 1, 48200 Durango
015054aa@hezkuntza.net • 946 81 66 45
www.eoidurangoeo.hezkuntza.net



“Egunerokotasunak gauzak ahaztera garamatzan arren, txarto ibiliko gara betiko akatsak egiten jarraitzen badugu”

Otsailaren 6an lau urte beteko dira Zaldibarko zabortegia amildu, behargin bi harrapatu eta Eitzagako inguruetan hondamendi ekologikoa sortu zenetik. Oskar Morales Eitzagako bizilagunak lau urteotako balantzea egin du

ZALDIBAR • E.H./A.R.

Eitzagan izan zen, Zaldibarko lurretan dagoen baina Ermuara zein Eibarrera begira dagoen 30 biztanleko baserri auzoan. Bertako auzotarrek Euskal Herrian aspaldi egoniko zurrubilo politikorik eta ekologikorik handienak irentsi zituzten orain lau urte. Mendia gainera etorriko ote zen beldurra, luiziak desagerrarazitako behargin bi, suteak, kea, furanoa, erreketako lixibatuak... Lau urte joan eta gero, Eitzagara bueltatu gara, gertatu zena gogoratzeko batetik, eta auzotarren bizitza zelan aldatu den jakiteko bestetik. Oskar Morales Bildosola Eitzagako bizilagunak hartu gaitu Eitzagako plazan.

Zein da Eitzagako auzotarrek gaur egun bizi duen egoera?

Lasai gaude. Mediatikoki ez dago zaratarik, ez dago kamioirik, ez dago mugimendu handirik. Badirudi hor, zabortegiaren inguruan, geratu egin dela dena, hilerri baten antzera. Lanak egiten jarraitzen dute, eta, bien bitartean, gure bizitzak aurrera doaz. Zabortegiko gertakaria ez

da eguneroko elkarrizketa hementxo bizilagunen artean.

Gertatu zen guztia ahanzturan geratu daitekeela pentsatzeak kezkatzen zaitu?

Parte batetik, ahanztura hori normala ere bada. Egun, aste eta hile haiek intentsitate handiz bizi izan genituen. Lau urteren ondoren, normala da horri bestelako jarraipen bat egitea.

Zelan aldatu da Eitzaga? Zelako bilakera izan dute auzotarrek?

Eitzaga oso auzo txikia da. Herriar edadetuak dira gehienak. Eta, jakina, denbora aurrera doanez, tarte honetan auzoko zenbait bizilagun hil da. Geroago eta jende gutxiago gara hemen. Bakoitzak ahal izan duen moduan jarraitu du bere bizitzagaz. Esango nuke horiek direla aldaketa nagusiak. Gainerako denak berdin jarraitzen du. Ermuko eta Eibarko biztanleak paseatzera etortzen dira inguruotara, hor zabortegi bat dagoela eta auzibideak oraindino ere indarrean daudela ahaztuta balego lez. Jendeak hau amaitzea, ahaztea eta halakorik

berriro inon ez gertatzea gura duela uste dut.

Auzi judizialei dagokienez, bik plano mediatikoaren lehen lerrora irten dute: langile bien heriotzagaz loturiko epaiketak eta ingurumenagaz loturikoak. Baina, hemen, auzotarren artean, bada auzibide gehiago.

Halantxik da. Zabortegia amildu eta gero, azpiegitura egonkortzen hasi ziren. Eta helburu hori lortu ahal izateko, zabortegiaren eremua handitu behar izan zuten, hainbat baserriaren lurak urgentziatzeko neurri lez desjabetuta. Baserri batzuetako ur iturriak zapuztu zituzten, landa eremuari eragin zioten. Eta lurren behin-behineko okupazioa izateko asmoz hartu zen neurri hori betikotu egin dela ikusi dute. Baserriar batzuk auzitegietan dabilta borrokan, instituzioen partetik eman zitzaizen tratua nahikoa traketsa izan zela iritzita. Eta ez dakite oso ondo noren kontra borrokatu, Verter eta Eusko Jaurlaritza ardurak elkarri pasatuta ibiltzen direlako.

Zelakoa da instituzioekin duzun hartu-eman? Jasotzen duzue lehen eskuko informaziorik?

Beti ibili gara instituzioen atzetik. Denboragaz konturatu gara zer lan gutxi egiten zuten zabortegi honen jarraipenean. Enpresek gura zutena botatzen zuten hemen. Eta orain dela gutxi ere ikusi dugu Lapurdiko enpresa bi zigortu dituztela. Horrenbestez, guk genioen guztia bete egin da. Edozer ekartzen zutela, zaborra ez zela bereizten, zaborra kanpotik zetorrela, oso merke botatzen zela. Hori guzti hori bete egin da. Beraz, argi geratu da instituzioen partetik ez dela jarraipenik egon. Batez ere, Eusko Jaurlaritzaren partetik. Apenas egoten zen ikuskatzerik. Bestalde, bizilagunengandik gertuen egoten instituzioa udala izan da. Guk beti jo dugu bertara. Joan zen legegintzaldi hasieran lanketa handia egon zen Zaldibarko Udalaren partetik. Baina legealdiko azken hiru urteetan ez zuten ezta batzar bat ere antolatu auzotarrak informatzeko. Udal aldaketa berriagaz,

honen guztiaren jarraipen handiagoa egitea gura dugu.

Eitzagako auzotarrek zer eskatzen duzue aurrera begira?

Zabortegia ganoraz zigilatzea eskatzen dugu, nahiz eta hori egingarria den esateko zalantzak ditudan. Zaborra ondo banatu zuten gainaldeko geruzan, baina azpialdeko geruzetan ez dago ezer. Horrela geratuko da, eta ikusiko dugu hortik zerbait filtratzen den eta balizko filtrazio horiek nora joan daitezkeen. Bestalde, ez dakigu kontrolik egiten den. Espero dut URAk eta Ingurumen Sailak

Honelakorik berriro ere ez gertatzea gura dugu, auzi judiziala amaitzea eta zauri hau behingoz ahalik eta ondoen sendatzea

honi guzti honi jarraipena egitea. Honelakorik berriro ez gertatzea gura dugu. Prozesu judiziala amaitzea eta behingoz zauri hau ahalik eta ondoen estaltzea gura dut, bai hildakoei, bai baserriarrei, auzotarrei eta bai inguruko herritarrei dagokienez. Azkenik, baten batek izan beharko du gertatu zenaren ardura. Gaur egun ez dago ardura-dunik. Inork ere ez du hartu gertaturikoaren erantzukizunik.

Zabortegiko hondamendi horretatik badago ikasteko ezer?

Baietz esango nuke. Positiboa izan gura dut. Ez du balio ez birziklatzeak, ez du balio bizilagunak kontuan hartu barik zulo bat edonon egin eta bertara zaborra botatzeak, ez du balio zaborra ez bereiztea hain merke irteteak. Bestalde, bizilagunek kontuan hartu behar dute lursailak nori eta zertarako saltzen dizkioten. Instituzioen kudeaketan ere lan handia dago egiteko. Ardurak agintariak eta guk ere, norbanako modura, baditugu. Horrez gainera, egunerokotasunak gauzak ahaztera garamatzala ikusi dut. Txarto ibiliko gara betiko akatsak berriro ere eginez ibiltzen bagara. Ingurumena kaltetzeak denoi eragiten digula hausnartu behar dugu. Zabortegiaren kokalekuari Zaldibar esan zaio, baina Zaldibartik hau ez da ikusten. Hemen 30 lagun baino ez gara, eta Ermuko eta Eibarko biztanleen jarrerak harritu egiten nau askotan. Iruditzen zait arazoa gurea balitz lez jokatzeko dutela. Baina zabortegia Ermutik eta Eibartik ikusten da. Hango 15.000 eta 25.000 biztanleei eragiten die. Eta hemendik doan urak Deba ibar osoari eragiten dio. Hausnarketarako deia egin gura nuke alde horretatik.

“Lotsagarria da ingurumenaren kontrako delituen auzia oraindino ere instrukzio fasean egotea”

Zaldibar Argitu plataformak lau urte daramatza Eitzagako hondakindegian zer gertatu zen aztertzen



Gaizka Zabarte Lasuen

Zaldibar Argitu plataformako kidea

ZALDIBAR | 1960

ZALDIBAR ARGITU • E.H.

Bere sorreratik, Zaldibar Argitu plataformaren helburua Zaldibarko hondakindegian gertaturikoa ezagutzea izan da. Gaizka Zabarte talde horretako kidea da.

Gertaturikoa argitzea eta erantzukizunak eskatzea da Zaldibar Argitu plata-

formaren helburua. Lau urte igaro ondoren, helburu horiek zein punturaino bete dira?

Zaldibar Argituk kalean jaso zuena aldarri legez hartu zuen: langileak, osasuna eta erantzukizunak. Haretan egunetan hondakin artean lurperatuta geratu ziren langile biez ari ginen. Gogoratu behar dugu

esaten genuela han beste behargin batzuk ere ibili zirela lanean, eta amiantoagaz ibili zirela. Beste atala osasunarena zen. Pertsonengan pentsatzen genuen, batez ere auzokideengan, baita inguruko milaka biztanlerengan ere. Osasun arloan, borroka luze bat izan genuen eitzagarrek hasieratik urari azterketak

egitea eskatu zutelako. Bai Jauralaritzak eta baita Zaldibarko Udalak ere ezetz erantzun zien, eta hori ere ez zen lortu. Erantzukizunei lotuta, ardurak politikoei buruz genbiltzan, eta horretan ere politikari batek ere ez du erantzukizunik bere gain hartu. Arriola eta Urkullu biak jubilatuko dira, lasai jubilatuta ere, eta honek ez die loa eragotziko. Eskaturikoak ez dira bete, baina hasieratik genekien noren aurrean genbiltzan borrokan. Hala ere, guk hortxe jarraitzen dugu.

Zer geratzen da egiteko?

Gauza asko. Urteurren honetan eskari urgente bat daukagu: auziaren instrukzioa amaitu dadila. Auzi bi zabaldu ziren. Batak langileen osasunaren kontrako delitua aztertzen zuten. Auzi hori itxi egin zen. Zaldibar Argitu, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta eta Ekologistak Martxan auzi horretatik kanpora utzi gintuzten. Ez gintuzten onartu herri akusazio lez. Gero ulertu genuen negoziatu egin zutela eta akordio batera heldu zirela. Horretarako, parte guztiak ados egon behar dira. Epaitegiak ebatzi zuten Verter Recycling enpresako hiru arduradunak zuzurtziagabekeriako hilketa biren arduradun zirela. Azpimarratu dezagun garrantzitsuena, zuzurtziagabekeriako hilketa bi dituela bakoitzak bere gain.

Eta beste auzibidea?

Ingurumenaren kontrako delituak aztertzen dituen auzibidea zabalik dago eta oraindino ere instrukzio fasean dago. Lotsagarria da instrukzioa hainbeste luzatzea horrelako

delitu baten aurrean. Azaro amaieran deklaratu zuten, lehenengoz, Eusko Jaurlaritzako hiru teknikaririk. Hondamendia gertatu eta ia lau urtera.

Eusko Jaurlaritzak modu subsidiarioan jokatzeko dabil.

Erreskatea ia 37 milioi euro izan dira eta hori herritarrok ordaindu dugu. Jaurlaritzak dio enpresari eskatzen diola, baina fase konkurtsean dagoela. Modu subsidiarioan jokatzeko du. Beste kontu bat da zelako ahalegina egiten dabilen, bai ardurak ikertzen eta baita enpresari ordainarazteko ere.

Ikerketa batek dio hondakindegiko lurrak ezegonkor daudela.

Sprilurrek Larrea Geologia ikerketa etxeari azterketa egiteko eskatu dio, inguru hori gainean indutrialde bat egiteko egokia den jakiteko. Harrigarria da. Larreakoekin txostena oso esanguratsua izan zen. Industrialdea eraikitzea, aukera legez, deskartatu egin zen. Beste ondorio bat zen hile batzuetan estabilizazio indizea aldatu egin zela, txarrera. Alarmak piztu egin ziren, bai Eitzagako bizilagunen artean eta baita gure artean ere. Eszenatoki posible hauek aurreikusten genituen: berriro amiltzea, gasen emisioak, sua... Gero, zorionez, terrenoa egonkortzera sartu ziren.

Gai hau ahanzturan geratzen dabilen sentsazioa dute auzokideek. Zuek ere bai?

Arazoa hor dago oraindino, lurren egoera dela eta. Epaitegietan ere ez da amaitu auzibidea. Horren oihartzun mediatikoa beste kontu bat da. Hori, neurri batean, edozein gertaeragaz pasatzen da. Mugarria Joaquin Beltranen bilaketa bertan behera utzi zenean ipiniko nuke. Ordura arte jendartean zabaltzen zebilena zen Jaurlaritzako gorpu baten bila zebilela. Tentsio hori zegoen. Bilaketa bertan behera utzi zutenean beste fase batean sartu zen.

Domekan oroimen ekitaldia egingo dute Eitzagako plazan, Joaquin Beltran eta Alberto Sololuze beharginak gogoan

Ekitaldia 12:30ean izango da. Zaldibarko udalbatzak adierazpen bat onartu du, aho batez

ZALDIBAR • EKAITZ HERRERA

Zaldibar Argituk deituta, domekan, otsailak 4, oroimen ekitaldia egingo dute Eitzagan. Elkarretaratzea 12:30ean izango da. Lore eskaintza egingo diete lur-jausian zabortegean harrapatuta gertaturikoa Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran beharginei. Horrez gainera, hitz hartzea eta txalapartariak egongo dira. Bestalde, Zaldibarko udalbatzak adierazpen instituzional bat onartu zuen joan zen asteko osoko

bilkuran, aho batez. Hiru puntuko adierazpenean, honako hauek jaso zituzten: Bat. "Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran zabortegean hildako langileak gogoratzen ditugu, eta euren senitarteko eta gertuko udalaren eta Zaldibarko herriaren elkartasuna, babesa eta hurbiltasuna adierazten diegu". Bi. "Zaldibarko Udalak amiltzearen inguruko erantzukizun guztiak argitzeko eskaera egiten du, eta helburu horregaz bere eskura dagoen guztia

egiteko konpromisoa hartzen du, gure herrian gertatutakoa beste inon gerta ez dadin". Eta hiru: "Zaldibarko Udalak zabortegea jausi zenetik langileen bilaketa, kaltetuen osasuna eta gertatutakoaren inguruko erantzukizuna aldarrikatu dituzten pertsona eta kolektiboei egindako lana eta euren konpromisoa eskertu gura dizkie, eta hondamendia gogoratzeko antolatuko diren ekitaldietan parte hartzeko deia egiten die herritarrei".



luz eginiko oroimen ekitaldia.

Eguraldi ona lagun, jendetza espero da bihar Abadiñon San Blas egunean

Abadiñoko Udalak doako autobus zerbitzua ipiniko du Traña-Matiena eta Zelaieta artean egunez eta gauzez: 09:00etatik 15:00etara eta 22:30etik 04:30era arte (orduerrero)



lazko azokako argazkia.

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Aurreikuspen guztien arabera, biharkoak azoka arrakastatsua izateko osagai guztiak dauzka. Aurten, San Blas eguna zapatua da, iragarpen guztien arabera eguraldi ona egingo du eta Abadiñora jendetza bertaratzera aurreratu da. Gainera, inoizko ekoizlerik gehien egongo da. Nekazaritza azokak ehun bat ekoizle bilduko ditu, eta ganadu azokak 190 bat abelburu. "San Blas oso egun berezia da jende guztiarentzat, abadiñarren egun handietariko. Gure hitzordurik tradizionalena da, izan garenaren eta gorde gura dugunaren isla", adierazi du Mikel Urrutia Abadiñoko alkateak.

Jai girorik ez da faltako bihar Abadiñon, eta goizetik gauera arteko programazio berezia antolatuko dute bertarako. Txistulariak, bertsolariak, herri kirolak, idi probak eta kontzertuak egongo

dira, besteak beste. "Zapatua denez, aurtengo azoka garrantzitsua izango da lehen sektorearentzat eta ostalarientzat. Zalantzarik barik, bertakoek eta bisitariak gozatzeko eguna izango da. Hori horrela, programazio erakargarria diseinatu dugu herriko elkarrekin elkarlanean", gaineratu du Edurne Maguregi alkateordeak.

Jendea errespetatzeko, herria zaintzeko eta garraio publikoa erabiltzeko deia egin dute

Abadiñoko Udalak doako autobus zerbitzua eskainiko duela iragarri du. Egunean zehar, 09:00etatik 15:00etara eta gauetan 22:00etatik 04:00etara Traña Matienatik Zelaietara artean orduerrero.

"Plazan inoiz altxatu dudan harririk handiena altxatu gura dut San Blas egunean"

Magunazelaia sanblasetan irten zuen lehenengoz plazara. Bihar berriro egongo da bertan

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Urdax Magunazelaia Agirrek (Abadiño, 1997) orain 20 bat urte irten zuen lehenengoz plazara harria jasotzera, 7-8 urte zituela. Abadiñon izan zen, San Blas egun batez. Aurten, urteurren hori ospatzeko, sorpresatxo bat prestatu du.

San Blasetarako sorpresa bat prest daukazula esan digute.

Ez da sorpresa handia, egia esan. Lehenengoz, San Blas egun batez irten nuen plazara, eta urteurren hori denez, zeozer berezia egin gura dugu. Plazan inoiz altxatu dudan harririk handiena altxatu gura dut San Blas egunean. Oraindino ez dakit zenbat kilokoa. 260, 265 kiloko harria jasotzea da nire asmoa.

Sanblasetan urten zenuen lehenengoz plazara. Zein urtetan?

Ba, orain 20 bat urte, 7-8 urte nituela. Niretzat egun berezia izan zen. Ume bat nintzen, bertako umea, eta jende mordo bat bertaratu zen ni ikustera. San Blas azoka ezagun-eguna da Euskal Herrian, eta errespetua ematen du, nahiz eta ume bat izan. Egia esan, eta gauzak horrela dira, umetan nahiko harroputza nintzen plazan. Jendeak uste ez duen arren, umetan ez nintzen hain lotsatia, eta plazak ez zidan ematen gaur egun ematen didan errespetua. Umetan ume jolas bat zen niretzat, eta gaur egun kirola da. Baina bai, oso momentu berezia izan zen niretzat.

Zuretzat berezia da sanblasetan harria jasotzea?

Gaur egun udaleko langile den Markelengaitik izan ez balitz, ez nuen gehiago harririk jasoko Abadiñon; Markelek asko lagun



Urdax Magunazelaia, iaz, Abadiñoko probalekuan. AINHOA IRAOLA

du dit. Azken hamar bat urteetan inoiz ere ez dira nitaz gogoratu, ez harri jasotzen egon naizen sasoiaren, ez utzita izan dudanean. Markeli eskerrak eta gaur egun udalean dauden batzuei eskerrak egongo naiz sanblasetan. Eta Abadiño nire herria delako eta abadiñarra naizelako, jakina.

Zergaitik bertaratu behar da jendea probalekura?

Lehenengo eta behin, gazteria gozelako plazara. Eta gero, Euskal Herrian dauden kirolaririk punterengoak gozelako: Iker Vicente, Karmele Gisasola, Ugaitz Mugertza, Nerea Arruti eta neu barne. Esango nuke Abadiñon aspaldi ez dela horrelako erakustaldirik egon.

Euskadiko harri handien txapeldun geratu zara. Aurrera begira, zer?

Erronka asko dut. Harri handietan ez dut lehia handirik ikusten, egia esan, eta ez dut inor ere

gutxietsi gura. Baina orain urte batzuk oso gatz zan lehenengoz hiruren artean sartzea, eta gaur egun ez dut horrelakorik ikusten. Harri txikietan, oster, lehia handia dago. Baina ni neu harri handietarako prestatuta nago gaur egun. Ia 140 kiloko mutila naiz eta ez nago txikietarako prestatuta. Baina, batek daki. Hori bai, Goenatxoren marka pare bat apurtu gura nituzke.

Beste ezer gehituz gura duzu?

Eskertzen dela zuen astekaria, ANBOTO, gutaz gogoratzea. Beti gogoratzen zarete gutaz eta ea beste hedabide batzuk zuengandik ikasten duten. Kirol txikitxo bat gara eta elkar laguntzen ez badugu jai dugu. Ondo dakit gauzak txarto egin ditudala inoiz, eta hori nire errua da. Dena agertu behar da, baina txarra agertzen den moduan ona ere agertu beharko litzateke.

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

2024ko otsailaren 2a
22. urtea - 966. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

2015 **Bikam**
Bikam
Bikam

PEFC ziurtagiria
Produktu hau
konsumatzaile
harririk materialak
egina dago. Irizketa
da eta Biko Kodeaketa
ziurtagiria dauka
www.pefc.es
PEFC14-38-0025

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru
Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Oraingoz adostasunik ez San Faustoko gizarte etxeari behin betiko kokalekua emateko eztabaidan

Durango Udalak alternatiba bi planteatu dizkio auzo elkarteari. Azken hau ez dago ados



Kapitanena baserria.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

San Faustoko gizarte etxearen eztabaidan jarrerak hurbiltzetik urrun daudela dirudi. Edo behintzat horixe ondorioztatu daiteke azken mugimenduei erreparatuz gero. Kapitanena berreskuratzeko proiektuaren aurrean, Durango Udalak gizarte etxea kokatzeko proposamen alternatibo bi aurkeztu zizkion auzo elkarteari. Baina planteamenduak ez ditu auzo elkarrearen eskakizunak asebetu. Beste behin ere, Kapitanenerako aurreikusita zegoen gizarte etxea babestu dute: "Udalak aurkezturiko aukerak aztertu eta gero, Kapitaneneko proiektua babesten jarraitzen

dugu. Kokalekurik egokiena hori delakoan gaude, auzotarron eguneroko bizimodutik gertu dagoelako. Saskibalo kantxatik, futbito zelaitik, elizatik eta frontoetik gertu. Epe motzera begira egingarria da". Auzo elkartek ohar batean jakinarazi duenez, bi izan dira udalak mahai gainean ipiniriko alternatibak. Asteiza Torre eta Ramon Rubiales kaleen arteko partzela da bat. Baina auzo elkarreko kideen iritziz, "zailtasunak ditu mugikortasunaren ikuspegitik" eta proiektua "zerotik hasi beharko litzateke". Beste proposamena "Zeharmendieta eta Bernardo Gabiola kaleen artean egingo diren eraikinen

azpialdeko lokal bat da. "Baina eraikin horien proiektua egin barik dago eta ez dakigu noiz eraikiko den. Horrek proiektua asko atzeratzea ekarri dezake. Aukera hori ez dugu bideragarri ikusten", adierazi dute auzo elkartetik.

Mireia Elkoroiribe alkateak adierazi du "auzoko bizilagun guztientzat guztiz irisgarria den lokal bat eskaintzea" dela udalaren helburua, "bizilagun guztiek erabili eta gozatu dezaten". Edozelan ere, argitu du "alternatiba guztiek, Kapitanena baserriarenak barne, tramitazio urbanistiko bat" behar dutela, eta horrek ezinezkoa egiten duela "berehala exekuzio bat".

Andoni Iruarrizaga Durangoko EAJko zinegotzi ohia hil da

2011-2015 legegaldian zinegotzi izateaz gainera, herriko hainbat mugimendutan ibilitakoa da. Hala nola Gure Eskun eta Muruetatorreko jaien antolakuntzan

DURANGO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Joan zen asteburuan Andoni Iruarrizaga hil zen. 55 urteko durangarra oso kirolaria zen, hainbat maratoi egindakoa; besteak beste, Berlinekoa, Londreskoa eta New Yorkekoa. Iazko martxoan Tokioko maratoia egin zuen. Iruarrizaga EAJko militantea izan zen, eta 2011-2015 legegintzaldian zinegotzia Durangon, Aitziber Irigoras alkate zela. Kultura eta Hezkuntzako batzordeko burua izan zen. Herrian ere hainbat saltsatan ibili zen laguntzen. Lagun batzuekin batera, Muruetatorreko jaiak antolatzen hasi

zen, eta Gure Esku dinamikan ere ibili zen, buru-belarri.

Iruarrizagaren heriotzak atsekabea eta samina eragin ditu eskualdean. "Zer esan zutaz, Andoni. Durango guztiak ezagutzen zaitu, beti saltsa guztietako perrexila, denon laguna, apala, eskuzabala, irribarre handiduna. Maite zenuen kirola egiten joan zara gaur, eta guk, hemen, daukagun samina gaingintu ezinik, beti gogoratuko zaitugu irribarre handi horregaz", adierazi du Durangoko EAJk. EH Bilduko kideek ere euren atsekabea adierazi dute.



Andoni Iruarrizaga zinegotzi ohiaren pasioetariko bat Athletic taldea zen.

Eskola Bideak egitasmoa hasiko dute Durangon, umeei ikastetxeetarako ibilbideetan laguntzeko

Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako ikasleei zuzenduriko lau ibilbide dira, begiralez lagunduta egongo direnak

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango Udalak, herriko ikastetxeek eta Txirringa eskolan el-

karteak Eskola Bideak egitasmoa hasiko dute, "eskola mugikortasun aktibo, iraunkor eta auto-

nomoa" sustatzeko. Programa berria Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako ikasleei zuzenduta dago eta otsailean ipiniko dute martxan. "Egitasmoaren helburua ikasleei ikastetxeetara joaten laguntzea da. Joan-etorriko lau ibilbide identifikatu eta seinaleztatu ditugu, eta hiru ordutegi markatu: irteerakoa, ibilbide erdikoa eta amaierakoa", azaldu du Asier Perugorria Hezkuntza zinegotziak. Besteak beste, eskolara autoz joan behar izaten dutenek ikastetxe inguruan sortu ditza keten auto pilaketak saihestea da egitasmoaren helburuetariko bat.

Proiektua begiraleen laguntzagaz garatuko dute. Lau monitorea egongo dira, ibilbide bako-

tzeko bat. Ibilbide bakoitzaren abiapuntuan (A puntuan) izango dira irteera orduan (08:30), eta handik eskoletako atarira joango dira. Bide-erdian B puntua igaroko dute. Han ere egongo dira zain, bost minutuan. Azkenik C puntura ailegatuko dira, helmugara, 09:00etarako. Bueltako bidean ere lagunduko dute. Begiraleak 16:30erako joango dira ikastetxeetara, eta bost minutuan egongo dira han zain, bideari ekin aurretik. Gutxi gorabehera 16:55ean helduko dira itzulera bidearen amaierara. Egitasmoaren bultzatzaileek Google Maps euskarrian ipini dituzte ibilbideak ikusgai. Loturak anboto.org atarian eta udalaren web orrian eskuratu daitezke.



Egitasmoaren helburuetariko batzuk segurtasuna areagotzea eta trafikoa murriztea dira.

Jolas librerako gunea apirilaren 21era arte egongo da zabalik Landako Gunean

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Durango Udalak haurrentzako jolas librerako espazioa zabalduko du, hirugarren urtez, Landako Guneako moduluetariko batean. Apiril erdira bitartean, epealdi bitan zabalduko dute: otsailaren 18ra arte lehenengo, eta apirilaren 8tik 21era ondoren. Egun horietan, jolas librerako gunea astelehenetik domekara egongo da zabalik, 16:00etatik 20:00etara, sei urtera arteko umeei zuzenduriko jokoekin. Edozelan ere, adin nagusiagokoak ere sartu ahal izango dira gunera. Udalak alternatiba bat eskaini gura du, batez ere eguraldi txarreko egunetan. "Zerbitzua erabilgarri egongo da, baldin eta ekitaldiren bat egitea eragozten ez badu", azaldu dute udal iturriek.



"Basokoipetsu Egunari esentzia dario, ospakizun erraza da, gurea, atsegina, azpiegitura handirik behar ez duena"

Asier Bilbao eta Ander Manterola otsailaren 11rako Basokoipetsu Eguna antolatzen dabilzan kideetarik bi dira. Ospakizuna, berez, Eguen Gizenaren aurreko domekan izaten da, baina Santa Ageda Egunagaz bat egitea saihesteko, astebete atzeratu dute

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

"Guk kanporamartxo esaten dugu etxean. Aita Zaratamokoa dugu eta izendapen hori jaso dugu berarengandik", dio Asier Bilbao zornotzarrak. "Guk, oster, basokoipetsu erabili izan dugu beti", erantzun du Ander Manterola herrikideak. Sasikoipetsu, baratuste, txitxiburduntzi, kanporamartxo... Ohiturari izen bat ala bestea ipini, Zornotzako euskalgintzan eragiten dabilen herritar talde batek urteak daramatza inauterien aurreko domekan baso aldera joan eta txerriak burduntzian ipinita, sutan

kozinatuta, egun-pasa antolatzen. Hamar urte dira egitasmoa era zabal batean lehenengoz antolatu zutenetik. "Zornotzan 2014an ekin genion Basokoipetsu Eguna era komunitario batean antolatzeari. Ordura arte ere egiten zen hemen, jakina. Etxeetan, ikastetxeetan... Baina urte hartan lehenengoz antolatu genuen era komunitarioan, herritar guztiei begira, zabalik", azaldu du Manterolak. Sasoi hartan, Nañon euskara elkarteko kideak izan ziren egitasmoa modu komunitarioan antolatu zutenak. Azken urteotan, baina, Zornotzako

euskalgintzako hainbat kide dabil egitasmoa antolatzen. Aurten ere San Bartolome auzoko ermitara joan eta haren inguruko zelaian ipiniko dituzte sutegiak, musika eta giro sanoa lagun, egun-pasa egiteko.

Ander Manterolak betidanik izan du Basokoipetsu Eguna etxean ospatzeko ohitura, "umetatik". "Autzaganekoa naiz eta gure etxe ondoan ospatu izan dugu beti", dio. "Guk ere etxe inguruan ospatu izan dugu. Eta Garain, amaginarrebarenean ere ospatu izan dut, baserriaren kanpoaldean. Basokoipetsua

ospakizun familiar modura ulertu dut beti. Nañonegaz hasi ginen ohitura herri osora zabaltzen", azaldu du Bilbao. Manterolak gaiari buruzko interesa agertu du, eta aitortu du hor ibili izan dela, han-hemenka, ohiturari buruzkoak irakurtzen. "Baina argi utzi gura dut ez garela etnografian adituak, e?", dio barrez. "Basokoipetsua garizumagaz lotzen da sarri, baina nire ustea da inauterietan eta bereziki udaberriaren esnatzeagaz lotuta dagoela. Basora joate hori, kanpora joate hori, udaberriaren esnatzeagaz lotzen dela esango nuke. Ohituraren arrazoia garizuma bada, orduan etxean ospatuko zela iruditzen zait", adierazi du. Asier Bilbao ere azpimarra egin dio ideia horri: "Egitasmoak berak dituen askotariko adierak ere hori iradokitzen dutela esango nuke. Kanporamartxo, sasikoipetsu, basokoipetsu... basora joate hori, kanpora joate hori, ez da etxean ospatzen, kanpoan baino", gaineratu du.

Ekitaldi jendetsua

Zornotzako basokoipetsuak 100 bat herritar batu izan ditu azken hamar urteotan. Iaz, adibidez, hiru sutegi eta gura adina ikatz ipini zuten. Sagardoa ere eskaini zuten. "San Bartolome bete-beterik egon zen. Dena dela, ez da masifikaziorik egoten. Oso ekitaldi polita izaten da", esan du Manterolak. "Eta esango nuke esentzia darion ekitaldia dela. Gurea, gure ezaugarriak dituen. Erraza da, atsegina, azpiegitura berezirik behar ez duena", dio. Bilbao ere "ospakizun txikerra" dela dio: "Gustura ospatzeko ekitaldia da, euskaldunen sarea handitzea eta euskaraz berba egitea ahalbidetzen duena. Eta euskalduna ez dena ere integratzen duena". Zornotzar biek ohiturari eusteko borondatea agertu, eta egitasmoan parte hartzera deitu dituzte herritarrek. Otsailaren 11n, udaletxearen atzeko kalbariotik irtengo dira San Bartolome ermitarantza, 10:00etan. Txerriak eta makilak norberak eraman beharko ditu etxetik. Eta jaiaz behar den moduan gozatzeko, giro sanoa eta irribarra ere bai.

Izurtzako plazan Txitxiburduntzi Eguna ospatzeko aukera dago, domekan

IZURTZA • J.D.

Txitxiburduntzi Eguna ospatzea urteroko ohitura da Izurtzan, eta aurten ez da salbuespena izango. Urtero hainbat izurtzar batzen da ekitaldira, eta Izurtzako Udalak aurten ere plazan batu eta eguerdi-pasa egiteko aukera eskainiko die herritarrei domeka honetan. Gainera, eguraldi ona dago iragarrita astebururako. Jai-giroa sortzeko, urtero legez, udalak sua prestatuko du eguerdian, herriguneko plaza inguruan, eta han ospatuko dute Txitxiburduntzi Eguna. Suaz gainera, udalak edaria ere ipiniko du bertaratzen direnentzat. Suan egiteko janaria, oster, norberak eroan beharko du.

Sanjuangoa eraikineko teilatua kentzen hasi dira, segurtasunagaitik

ZALDIBAR • J.G.

Zaldibarko Udala Sanjuangoa eraikineko teilatua kentzen hasi da, segurtasun arrazoiengaitik. Prentsa oharrean azaldu dutenez, legegintzaldi honetan espazio horretan kultur etxea sortzeko pausoak eman gura dituzte. "Sanjuangoan kultur etxea egitea egitasmo garrantzitsua da, Zaldibarko herritarrok eskubidea dugulako kulturaz gozatzeko", dio Eneritz Azpitarte alkateak.



Zornotzako Udala Gure Kirolak frontoia berritzen hasi da

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Aldamioak ipini zituzten astelehenen. Eta martitzenean zeregin nagusiari heldu zioten beharginek. Gure Kirolak pilotalekuko teilatuak filtrazio arazoak dituela eta, Zornotzako Udala konpontzen hasi da. Polikarbonatozko saretu

bat eta altzairu galbanizatuko txapa ipiniko dituzte sabaian. Obrek aste bi iraungo dute. Bien bitartean, erabiltzaileek Bernagotiko, Etxanoko, Zubizabalako eta Eubako frontoiak izango dituzte erabilgarri. Azken honen kasuan, erabilera erreserbatu beharko

dela gogorarazi du udalak. Anartz Gandiaga hirigintza zinegotziaren berbetan, Gure Kirolak hobetzea "beste urrats bat da Zornotzan bizimodu aktibo eta osasungarria sustatzeko bidean". Proiektuak "espazio seguru eta modernoak sortzeko konpromisoa" erakusten duela gaineratu du. Udalak 10.020 euro ipiniko ditu hobekuntza lanetarako, eta gogoratu du Gure Kirolak herritarrek aurrekontu parte hartzaileetan aukeratu zuten azpiegitura dela.



Gure Kirolak Zornotzako herriguneko sarbideetarik batean dago.



ANDRAMARI

ZORNOTZAKO IKASTOLA



ANDRAMARI, ZORNOTZAKO IKASTOLA: TXIKIAK HANDI EGITEKO HEZKUNTZA OSOA

Hezkuntza eskaintza osoa du Andramari Zornotzako ikastolak. 0 urtetik 18 urtera arteko eskaintza, etapa bakoitzean adinari eta ikasleen ezaugarriari egokitutako hezkuntza proiektu sendoarekin, beti ere helburu nagusi bakar batekin: haur eta gazteak gaurko eta biharko beharretarako prestatzea.

Hezkuntza proiektu oso baten inguruan batu nahi ditugu komunitateko kide guztiak Andramari ikastolan, haur eta gazteen garapena eta ongizate fisiko, sozial zein emozionala bilatuz, familien partaidetza zuzena bultzatuz eta kide guztion inplikazioa eraginez. Eredu kooperatiboa da Andramari Zornotzako ikastolarena, euskalduntasunean oinarrituta eleaniztasuna lantzen duena, Euskal Herri osoan aritzen den proiektu sendo baten parte. Ikastola komunitatearen

balioak, printzipioak eta proiektua partekatzen ditugu, herritik sortuta, herrian eragiteko. Ikastola gara, euskaratik eta euskaraz.

Profesional talde esperientziadunak dihardu Andramari Zornotzako ikastolan, proiektuari atxikituta dagoen ibilbide luzeko irakasle taldea. Haur eta gazteak beren garapen eta ibilbidearen protagonista izanik, irakasleak prozesu horretan bidelagun dira ikas-etapa guztietan, ikasle bakoitzak behar dituen baliabideak eskainiz. Ikasleen beharrianak aintzat izanik, tutore eta irakasleek pedagogia aktiboak erabiltzen dituzte, pertsonaren garapen integrala, osoa eta orekatua ahalbidetzeko.

PEDAGOGIA ERALDATZAILEA, IKASLEAREN BIDELAGUN

Haur Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara hezkuntza ibilbide jarrai batean kateatzen dira hiru proiektu. Hazia proiektuaren bidez, 0 eta 6 urte arteko etapan, haur bakoitzak berez dakartzan gaitasunei hazten laguntzea da hezitzaileon funtzioa. Kimua proiektuarekin, berriz, 6 eta 9 urte arteko etapan, ikaslearen errealitatetik hurbil dauden egoeretatik eta bizipenetatik abiatuta, jakintzagai berrietara esperimentazioaren bidez gerturatzea da ikastolan dugun egiteko nagusia. Eta Eki proiektuarekin azkenik, 9 eta 16 urte arteko ikasleekin, kompetentzietan oinarrituz eta integrazioaren pedagogiaren bitartez, gaztearen gaitasunei etorkizunerako oinarri sendoak ematen zaizkie ikastolan. Ikasleak ikastolan egiten duen ibilbide osoan zehar laguntza departamentuaren eta bizikidetzaren proiektu sendo baten babesean aritu ahal izango du.

Metodologia berritzaileak aplikatzen dira ikastolan ikasleek egiten duten ibilbide osoan zehar. Haur bakoitzak berezkoak dituen gaitasunak garatzeko testuinguru aproposa eskaintzea da gure proiektuaren oinarria. Txikien artean esperimentazioaren bidez ikasleen jakin-mina sustatzen dugu. Ondorengo etapetan ikasleek ikasitakoa egoera errealean aplikatzeko gaitasuna eskuratzen dute, bakarrik nahiz talde



lanean. Etengabeko berrikuntzaren bidez behar eta erronka berrietara egokitzen ari da ikastola.

Sukalde propioa duen jantoki zerbitzua, zaintza eta garraio zerbitzuak, eskolaz kanpoko ekintzak eta urtean zehar hainbat ekimen antolatzen ditu Andramari Zornotzako ikastolak.

EZAGUTU IKASTOLA

Hurrengo ikasturterako matrikulazio epea zabalduko da datozen asteotan. 0 eta 1 urteko haurrentzat urte osoan dago matrikula egiteko aukera. 2 urtetik aurrerako ikasleentzako, berriz, otsailaren 7tik 23ra dago hurrengo ikasturterako matrikulatzeko epea zabalik.

Ikastola ezagutu nahi duten familientzako aukera ugari eskaintzen dira. Otsailaren 5ean bisita gidatuak egingo dira ikastolaren funtzionamendua eta proiektua bertatik bertara ezagutzeko. Gainontzeko egunetan ere, bisita pertsonalizatuak egiteko aukera dago. Ikastolara telefonoz deituz edo webgunearen bidez eman daiteke izena, bai bisita gidatuan parte hartzeko bai bisita pertsonalizatua egiteko.



TXIKIAK HANDI EGITEKO HEZKUNTZA OSOA

Otik 18 urtera arte

2024-2025 MATRIKULAZIOA:
OTSAILAREN 7tik 23ra arte

➤ Bisita gidatua: otsailaren 5ean, 11:00etatik aurrera

EZAGUTU IKASTOLA!



946732950 | zornotza@ikastola.eus
www.andramarizornotzakoikastola.eus

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Mañariko karnabalek bisitari bereziak izango dituzte aurtan: Sasi-berezi artzaina, mozoloa, aurpegi zuriak, aurpegi beltzak eta gehiago. Errose Bustintzaren ipuin bateko pertsonaiak dira batzuk, eta herritarren imajinaziotik irrendakoak besteak. Denekin karnabalei loturiko istorio bat kontatuko dute otsailaren 10ean, 17:00etan. Herrigune osoa izango da eszenatokia, kalerik kale ere ibiliko dira eta.

Kafraga elkartetik irten zen ideia, eta herritarren eta herriko elkarten lankidetzari eskerrak gorpuztu dute, udalaren laguntzagaz. Karnabalen beste eredu bat proposatu gura dute, herriko tradizioan eta mitologian oinarritzen dena, ohiko eredu kontsumista eta komertzialetik urrunduta. Horrez batera, herritarrak eta gazteria egun horretan herrian geratzea gura dute, karnabalekin Mañarian bertan gozatu dezaten. Alde horretatik, antolatzaileak pozik daude. "15 urtetik 22 urtera arteko gazte asko gogotsu dabil eta hori inportantea da, eurak direlako etorkizuna eta honi jarraipena emango diotenak", azaldu du Kafraga elkarteko Paul Aranak.

Errose Bustintzaren ipuina

Ikuskizunaren sorburua Errose Bustintza idazlearen (Mañaria, 1899-1953) *Jentillen bola-lekua* ipuina da. Behin, jentil batzuk bola-jokoan ei zebiltzan Untzillax inguruan. Euren gura barik ihes eginiko bola batek hainbat zuhaitz eraitsi zuen eta eurentariko batek Kukin artzaina jo eta hil zuen. Jentilak estutu eta penatu egin ziren, estimuan zutelako Kukin, egunero ardi-esnea eroaten zien artzaina. Eginahalak eginagaitik ezin izan

Sasi-berezi eta bere lagunak, Mañariko inauteriak girotzera datozen gonbidatu berriak

Errose Bustintzaren ipuin bat jatorri hartuta, herritarrek kale ikuskizun bat sortu dute. Otsailaren 10ean erakutsiko dute. Sasi-berezi da protagonista, mozoloa bere aurkari maltzurra, eta aurpegi zuriak eta beltzak bataren eta bestearen aliatuak



Inauterietako ikuskizunean arituko diren herritarrak, joan zen domekako entsegu egunean.

zuten artzaina biztu, eta euren eskuekin mutil berri bat egitea pentsatu zuten: zotzezko oin-behartzekin, arto-lastozko besoekin, bildots-larruzko sabelagaz, zurezko eskuekin... Inguruan hegan zebilen mozolo bat barre-zantzoka hasi zen mutil sortuberriaren itxura ikusi zuenean eta Sasi-berezi izena ipini zion.

Otsailaren 10ekoa

Ipuinetik hartu dituzte kale-ikuskizuneko pertsonaia nagusi biak: Sasi-berezi eta mozoloa. Eurekin istorio berri bat sortu dute, pertsonaia berriak gehituta. Otsailaren 10ean Sasi-berezi herrira jaitsiko da, lagun dituen aurpegi beltzekin. Herritarrek ongietorri beroa egingo diote karnabaletan, ohikoak

diren tostadak egiteko ahuntz esnea dakarrelako. Baina orduan mozolo maltzurra eta bere aliatuak agertuko dira, aurpegi zuriak, eta dena trabestuko da. Hauek helburu bakar bat dute, esneontzia ostea.

Sasi-berezi eta bere lagunak kalerik kale ibiliko dira pregoilarien laguntzagaz. Azken hauek koplak abestuko dituzte, istorioa kontatuz

eta jendea kalera irtetera animatuz. Heroiek esnea jubilatuei emango diete, tostadak egin ditzaten, eta azken liskar bat izango dute aurpegi beltzekin. Nork irabaziko ote du? Bertara doanak deskubrituko du. Segurua dena da ez dela tostadarik, txokolate berorik, muskarik eta jai-girorik faltako bertaratzen direnentzat.

Otxandioko Udal Bandak kontzertua emango du gaur, Santa Marina elizan

OTXANDIO • J.D.

Gaur, otsailak 2, Otxandioko Udal Bandak musika kontzertua emango du Santa Marina elizan, 20:00etan. Sarrera doakoa da. Bertan erreperatorio zabala joko dute; abesti tradizionaletatik hasi (*Behin joan nintzen monte zala basora, Les fetes de Mauléon...*) eta folk eta rock doinue-taraino: *Let's twist again*, Bryam Adams-en *Everything I do, I do it for you...* Adin desberdinetako 18 bat muskarik emango dute kontzertua. Tartean, 7 urtetik 10 urtera arteko gaztetxoak daude, tronpeta nahiz bateria jotzen.

Mallabiari buruzko 'Ez esan!' galdera-erantzunen jokoa hasi dute asteon

Hilero bost galderako galdetegi bat zabalduko dute herriko hainbat tokitan. Galdera guztiek Mallabia dute ardatz



Mallabiko historiari, kirolari, kulturari... buruzko galderak izango dira.

MALLABIA • J.D.

Mallabiko Berbalagunek eta udalak Mallabiari buruzko *Ez Esan!* galdera-erantzunen jokoa hasi dute. Otsailean hasi eta maiatz-ekainera bitartean, bost galderako galdetegi bat zabalduko dute hilean behin. Galdetegiak, oraingoz, liburutegian, udaletxean eta frontoiko tabernan daude eskuragarri, eta han

bertan entregatu daitezke, izen-abizenak gehituta. Aurrera begira, herriko dendak eta tabernak ere batu gura dituzte ekimenera. Horrez gainera, hainbat bide erabiliko dute hilero galderak zabaltzeko: sare sozialak, herriko elkarteetara banatuta... Hile bakoitzeko galdetegiak zuzen erantzuten dutenek sari bat izango dute. Horrez gainera, hilero pertsona bi aukeratuko dituzte asmatzaileen artean. Amaieran, zuzeneko saio bat egiteko asmoa dute bikote irabazleekin.

Lehiaketaren helburuak euskarra sustatzea eta Mallabiko kontuak ezagutaraztea dira. Izan ere, galderek Mallabia dute ardatz; hau da, herriko historiari, kulturari, kirolari, euskarari... buruzkoak dira. Esaterako, hau da otsaileko galdera bat: 1635ean, Bizkaiko Bartzar Nagusietan, beste herri baten lekua hartu zuen Mallabiak. Zein izan zen herri hori?

Gremioen gida



Zurgintza

leike Eraberritzeak
Interiorismoa
Aroztegia

NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leike.eus

Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Zurgintza

ATERPE ARBOTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Iturgintza

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com

anboto
kide

Anbotokideen
txokoa

OTSAILEKO ZOZKETAK



Almazenean antzerkirako sarrera bikoitza.
Otsailaren 15ean, San Agustinen.



Euskaldungak antzerkirako sarrera bikoitza.
Otsailaren 16an, Zornotzan.

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman
izena gure webgunean.

IRABAZLEAK

Gosaria Xiberun: Ander Etxebarria Lejarreta

'Ez gara jaitsiko' umeen antzerkia: San Antonio ikastetxea

'Golazen 10.0' kontzetua: Juan Orobiogoitia

Okm:
batzen gaituen
distantzia

Egin zaituz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Garaiko Udalak lehiaketa publikora atera du Herriko Tabernaren kudeaketa

Eskaintzak aurkezteko epea otsailaren 5ean amaituko da, 14:00etan. Interesdunek Garaiko udaletxera jo dezakete

GARAI • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Garaiko Udalak prentsa ohar bidez jakinarazi duenez, Herriko Tabernaren kudeaketa lehiaketa publikora ateratzea erabaki dute. "Egun indarrean dagoen kontratua 2020ko maiatzaren

amaieran izenpetu zen. Horiek horrela, 2024ko maiatzean, kontratuaren indarraldia amaitzen denez gero, araubideak agintzen duena betez, Garaiko Udalak Herriko Tabernaren kudeaketa lehiaketa publikora atera duko",

adierazi dute Garaiko udal arduradunek.

Kontratuaren berrikuntzei dagokienez, udal arduradunek jakinarazi dute Herriko Taberna urte osoan zabalik eduki behar du dela, atsedeen egunak aparte utzita, jakina. Bestalde, langileek oporrak hartu ahal izateko, jabetxe aaldi baterako itxi ahal izango dela azaldu dute udal arduradunek, baina taberna zabalik egon behar du dela. "Herri-tarrei elkartzeko eta elkarrengaz egoteko gune bat eskaini gura diegu. Gainera, herrian taberna bakarra dagoenez, zerbitzu horri eutsi eta herriko giroa indartu gura dugu", gaineratu dute.



Garaiko Herriko Taberna udaletxearen eraikin berean dago.

Enpresa itunaren inguruko akordioa lotu dute Nutec Procal enpresan

Akordio propio bat sinatzea lortu dute, kimiketako estatuko hitzarmenaren hainbat atal nabarmen hobetzen dituen; erabaki hau aho batez onartu dutela dio LABek

BERRIZ • J.G.

Nutec Procal enpresako langileek bost greba egun egin ondoren, enpresa itun propioa sinatzea lortu dute. Akordio horrek kimiketako estatuko hitzarmenaren hainbat atal nabarmen hobetzen ditu, LAB sindikatuak azaldu duenez. Sinaturiko enpresa itunak urte biko indarraldia izango du (2024-2025). Aldi horretan, soldata KPIa baino puntu bi gehiago igoko dela bermatuko dute, eta lanaldi murrizketa hamasei ordukoa izango da aurtun, eta 24koa 2025ean. Bajen osagarriak ere hobetu dituzte. "Akordioari eskerrak, Aldi Baterako Laneko Enpresetako hamar langile mugagabeak izango

dira eta gainerakoei enpresako plantillaren baldintzak parekatuko zaizkie, eta euren lana ABLEen bitartez bete dezaket denbora

mugatuko da", azaldu du LABek. Nutec Procal enpresa Berrizko Eirua industrialdean dago eta 50 langilek osatzen dute.



Nutec Procal enpresako langileen mobilizazioa.

Bertako basoak babesteko, 380 zuhaitz landatu dituzte auzolanean

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrio-Atxondo Baso Biziak elkarteak eta Elorrioko Udalak deituta, 380 zuhaitz landatu dituzte asteburuan Elorrion. Auzolanean egiten duten bigarren landaketa da, eta bioaniztasuna hobetzea, lurzorua babestea eta klima aldaketaren eraginari aurre egitea dute helburu.

Antolatzaileek esan dute herritarren erantzuna "ezin hobea" izan dela. 80 lagunek

baino gehiagok parte hartu dute bertan, familiek gehienbat. "Eskerrak eman gura dizkiegu

Bioaniztasuna hobetzea, lurzorua babestea eta klima aldaketaren eraginari aurre egitea dute helburu

bertaratu diren boluntario guztiei", gaineratu dute antolatzaileek.

Elorrioko Udalaren lursailetan 380 bat arbola landatu dituzte guztira. Haritza (*Quercus robur*) eta artea (*Quercus ilex ilex*), batez ere; izan ere, horixe da eremuaren landaretza potentziala. Horiez gainera, urkia, gorostia, sagarmina, gartxu hostozabala, baso-makatza, hesilaharra eta elorri zuria ere landatu dituzte.



Asteburuko zuhaitz landaketako argazkia.

Laguntza psikologikoa, indarkeria matxista jasandako emakumeentzat

Elorrioko Udalak beharrezko baliabideak ipini gura ditu indarkeria matxista jasaten duten emakumeen eskura

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak berehalako laguntza psikologikoa eskainiko die indarkeria matxista jasaten duten emakumeei. Udaletik jakinarazi dutenez, gaur egun Mankomunitateak harrera, deribazioa, arreta psikologikoa eta laguntza juridikoa ematen dizkie egoera horretan dauden emakumeei, gizarte zerbitzuen bitartez. Baina momentu horietan emakumeek "egoera latza" bizi dutela jakinda, udalak zerbitzu berri bat ipini du martxan, berehalako laguntza psikologikoa emateko zerbitzua.

Indarkeria matxista sufritzen dabilzan emakumeek arreta osoa eta pertsonalizatua jasotzea izango da zerbitzuaren helburua, modu azkar eta malguan, kasuek eskatzen duten erantzuna ahalik eta azkarrena izan dadin. Indarkeria egoeretatik sortzen diren beharrian guztiei erantzutea ere badela asmoa adierazi dute.

Hori horrela, indarkeria matxista jasaten dabilzan emakumeek eta laguntza psikologikoa

gura dutenek hiru bide hauek erabili ditzakete: medikuagaz edo erizainagaz berba egitea 94 623 80 70 telefono zenbakira dei-

Eskaerak Elorrion dagoen indarkeria matxistaren kasuak koordinatzeko gunetik bideratuko dituzte

tuta, gizarte langileari deitzea 94 620 04 92 telefonora, edo udaleko berdintasun teknikariari deitzea 94 657 08 09ra.

Behin hori eginda, eskaerak Elorrion dagoen indarkeria matxistaren kasuak koordinatzeko eta jarduteko gunetik bideratuko dituzte, eta, ondoren, zerbitzuaren eskatzaileek psikologoe-kin egoteko aukera izango dute. Saioak aurrez aurre egin daitezke, telefonoz, edo bideo-dei bidez, euskaraz zein gaztelaniaz.

Ametsen abenturan murgilduz

Patata Tropikala Antzerki Laborategiak 'Ametsen Mundua' txotxongilo ikuskizuna aurkeztuko du, Iurretako Antzerkia Bultzatuz kultur zikloaren eskutik. Otsailaren 9an izango da, 17:00etan, Ibarretxe kultur etxean

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Patata Tropikala Antzerki Laborategiak *Ametsen Mundua* txotxongilo ikuskizuna aurkeztuko du Iurretan. Antzezlana Bultzatuz kultur zikloaren eskutik taularatuko dute, otsailaren 9an, 17:00etan.

Zapata pare bat eskuratu berri duen Amets izeneko neskatua da istorioko protagonista. Ametsek zapata pare berezia erosi du, eta horiek janztean izugarritzko abenturan murgilduko da. REM Ametsen Munduko atezaina ezagutuko du eta honek ohartaraziko dio Ametsen Mundua arriskuan dagoela. Bada, Ametsek amets gaiztoen makinatik salbatu beharko ditu umeak, irudimena galdu ez dezaten, robot eta makina bihurtu ez daitezten. Patata Tropikala Antzerki Laborategiak txotxongiloak, antzerkia, umorea eta irudimena batu ditu *Ametsen Mundua* obran. Judith Povesek zuzenduriko eta Iker Etxarrik prestatutako obra da eta publikoak Ibarretxe kultur etxeko oholtzan ikusi dezake lana.



'Ametsen Mundua' txotxongilo ikuskizuna.

Galdetegia Atxondoko etxebizitza egoera ezagutzeko

Udalak etxebizitzaren inguruko galderekin osaturiko formularioa betetzera deitu ditu atxondarrak

ATXONDO • J.G.

Atxondoko gobernu taldeak herriko etxebizitza egoera ezagutu gura du. Horretarako, galdetegi bat betetzera deitu ditu atxondarrak, eta herritarrak galdera horiei erantzutera animatu ditu. Atxondarrek arlo horretan dituzten beharrian eta iritziak ezagutzea da helburua, horren arabera etorkizuneko etxebizitza politikak lantzeko gero. "Herrian

bizi gura duen jendea zein egoeratan dagoen eta zer beharrian duen ezagutu gura dugu. Azken urteotan ez da etxebizitzarik erai-ki herrian. Arlo honetan emango ditugun hurrengo pausoak herritarrekin batera landurikoak izatea gura dugu", azaldu du Eneritz Agirre Atxondoko alkateak. Etxebizitzari buruzko formularioa *atxondo.eus* webgunean edo udaletxean bete daiteke.



Atxondoko artxiboko irudia.

Kobika jatetxeko 'Mr. Rabbit' pintxoak hirugarren, Madrilen egin den txapelketan

Martitzenean egin zuten Espainiako txapelketa, Madrid Fusion kongresuaren barruan



DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Durangoko Kobika jatetxearen 'Mr. Rabbit' pintxoak hirugarren postua eskuratu du Madrilen, Madrid Fusion kongresuan eginiko Espainiako txapelketan.

Kobika jatetxeko Kortabitarte anaien sorkuntza berria trufa, ezti eta mostazatan bustiriko untxi-gisatua da. Hamabost bat orduraz izan dute erretzen, su txikitik. Hezurrekin egindako salda gehitu diote gisatuari eta hiru irineko ogian barneratu. Pintxoak limagaz, maionesa pikanteagaz eta lore ukituekin borobildu dute. Artelan horrek epaimahaiaren hirugarren saria jaso zuen martitzenean. Aurretik sari gehiago jasotakoa da. Esaterako, iaz Bizkaiko Pintxo Txapelketa irabazi zuen.

Politikan

Paule Sanchez
Arieta-Araunabeña
EAJ



Agur eta egun haundi arte!

Aste hauetan, zutabe honetarako beste gai bat lantzen ibili naiz. Baina beste alderdikide bati, adiskide bati, agur esan behararren berria jasotzek hankaz gora jarri ditu nire asmo guztiak.

Duela gutxi Jose Mari agurtzen bageunden, oraingoan Andoni agurtu beharrean gaude. Zelako gogorra! Bi biak gizon zintzoak, jeltzaleak, abertzaleak, semeak, gurasoak, durangarrak. Biak baita Durangoko EAJko zinetzotzi izandakoak ere.

Legegintzaldi desberdinetan gure herriko udalean zinetzotzi jardunak gauzatu zituzten eta Durangori, maite dugun herri honi, beraien bizitzako urte on batzuk eskaini zizkieten.

Inolako protagonismo nahirik gabe, egokitu zitzaizkien arloetan fin ibili ziren lanean. Jose Marik Merkataritza Arloko arduradun kargua izan zuen, besteak beste, Juan Jose Ziarrustarekin, eta Andonik Kultura eta Hezkuntza sailen buru izan zen Aitziber Irigorasekin.

Lerro hauek izan daitezela Andoniri eta Jose Mariri esker oneko berba batzuk helarazteko modua.

Eskerrak eman nahi dizkizuet modu desinteresatu batean gure herriaren alde, Durangoren alde, lan egiteagatik; eskerrak eman gaur egun Durangon dugun bizi-kalitatearen erantzuleetako batzuk zaretelako ere.

Ez zait bururatzen zuok omentzeko modu hoberik zuen lekukoa hartu eta utzi diguzuen ondarearekin jarraitzea baino. Zuen egitekoa, adostasunetara heltzeko nahia, zuen irrifarra, irudimena,... zuen gogo eta nahiak eredu eta aintzat hartuz, eutsiko diogu amesten zenuten Durango eta Euskadi eraikitzeke erronkari.

Egun haundi arte. Goian beude.

Durungaldea asteen

Hastapeneko eskalada ikastaroa egingo dute Elorriko kiroldegiko boulderrean

ELORRIO | Erabiltzaile hasiberriek eskaladaren oinarriko kontzeptuak ikasteko eta boulderreko eremua hobeto ezagutzeko ikastaroa antolatu dute Elorrion. Otsailaren 18an izango da. Parte hartu gura duenak otsailaren 12ra arte dauka izena emateko aukera, kiroldegian.

'Haurrak eta pantailak' gurasoentzako berbaldi-solasaldia eskolako gimnasioan

ATXONDO | Gaur, 17:00etan, *Haurrak eta pantailak* berbaldi-solasaldia egongo da gurasoentzat, Atxondoko Eskolako gimnasioan. Atxondoko Ikasleen Guraso Elkarteak, kultura mahaiak eta udalak elkarlanean antolatu duten solasaldia da, eta berbaldiaren orduan ludoteka zerbitzua egongo da.

Euskal Herriko emakume nekazari eta artisauen azoka Zornotzan

ZORNOTZA | Bueltan da Euskal Herriko emakume nekazari eta artisauen azoka. Zelaieta parkea emakumeek sektore horietan bietan egiten duten lanaren erakusle izango da martxoaren 9an. Udalak azokaren XXVI. edizioa antolatu, eta azokan postua ipintzeko inskripzio epea zabaldu du. Interesdunek otsailaren 15era arteko epea izango dute eskariak aurkezteko.



Zornotzako El Carmelo ikastetxeak Bakearen Eguneko lasterketa egin du asteen

ZORNOTZA | Zornotzako El Carmelo ikastetxeak lasterketa solidario bat egin du asteen Bakearen Egunaren harira. Eskolako kideen arteko lasterketa egin dute, Save the Children Gobernu Kanpoko Erakundeagaz elkarlanean. Lasterketa ikastetxeko haurtzaindegitik irten zen eta ibilbidean zehar korrikalariek pankarta bat eraman zuten, *Bakearen Eguna* leloagaz.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

**ESKELAK/ URTEURRENAK/
OROIGARRIAK/ ESKER ONAK
ANBOTON**

75€

• Ehorztetxearen bitartez

• Anbotoren bitartez:

946 816 558 • anboto@anboto.org

anboto.org/eskelak

Anbotokideek deskontua izango dute.





BURUARI KLIK!




MATEMATIKA

Egin batuketa txirrindulariek helmugara heltzeko zenbat minutu behar dituzten jakiteko. Nor helduko da lehenengo?







DIFERENTZIAK

Topatu itzazu zazpi diferentziak.



BIKOTEAK EGIN



BIKOTEAK SORTU



Beheko bizikleta hauek guztiek euren bikotekidea dute.
Bazara gai denak topatzeko?





ITZALAK

Behean dauden itzal guztietatik zein dagokio alboko irudiari?



IRUDI ENGAINAGARRIAK

Zazpi zati hauetatik bi ez datoz bat beheko irudiagaz. Zeintzuk?




ZENBATU

Zenbat urte egiten ditu?
Zenbatu pastelean dauden kandelak
eta erantzuna jakingo duzu.



OSATU MARRAZKIA



Okm:

batzen gaituen distantzia

Abantailak

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

HITZ LIBURU-DENDA

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15eko deskontua sarreran

IURRETA KOPISTEGIA

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
- %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
- Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- % 5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %5eko deskontua produktu guztietan.

URRIKE LIBURU-DENDA

- %5eko deskontua liburuetan
- % 10eko deskontua papergintzan

LA PERLA


- %15eko deskontua forman jartzeko talaso zirkuituan
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan

NAIA GORROÑO HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografiatan

HONTZA MUSEOA

- %50eko deskontua sarreretan



> anboto
kide

URALDE HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografietan

EILEKE

Psikologia, neuropsikologia, logopedia eta psikomotrizitatea

- %15 eko deskontua saio solteetan

TABIRA BITXIDENDA

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan

PSIKOLOGIA AMOREBIETA

- %20ko deskontua zerbitzu guztietan

KEINU OPTOMETRIA ZENTROA

- Armazoizko lenteetan eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua

GAU-TU

- Dendako ehun guztietan %10eko deskontua, eta 500 €-tik gorako erosketetan %5eko deskontua atsedeen sistemetan.

SOLOZABAL ALTZARIAK

- Denda eta erakusketako produktuetan %10eko deskontua (etxeko aire-gozagarrietan izan ezik)



***Egin zaitez ANBOTOKIDE
eta baliatu abantailez!***



'Naizen emakumea'

ERAKUSKETA ZORNOTZA:: Otsaila 28ra arte

Errumaniako arkitektura emakumeen ikuspegitik

Emakumeek Errumaniako gerraren arteko arkitekturaren eta arkitektura garaikidean eginiko ekarpena ezagutzeko aukera dago egunotan Zornotzan. Izan ere, *Naizen emakumea* erakusketa dago zabalik Zelaieta zentroan. Bertan, joan zen mendeko hasieratik gaur egunera arte arkitekturaren eragin nabarmena izan duten Errumaniako zazpi arkitektoen lana eta bizitza jaso dute. Horien artean daude, besteak beste, Errumaniako Maria erregina, Virgi-

nia Andreescu Haret, Henrietta Delavrancea, Ioana Grigorescu, Silvia Demeter-Lowe, Eliza Yokina eta Ilinca Păun Constantinescu.

Erakusketa Errumaniak Bilbon duen Kotsulatu Nagusiaren, Errumaniako Kultura Institutuaren eta Errumaniako Arkitektoen Batasunaren arteko lankidetzaren emaitza da; hain zuzen ere, erakusketaren inaugurazio ekitaldiak Mihai Eminescu poeta errumaniarraren jaiotzaren 174. urteurrenagaz bat egin zuen.

Otsailaren 2an

ABADIÑO izena ematea San Blas 2024 Pilota Txapelketa

18:00etan, Tornosolo trinketean: Txapelketako paleta goma mistoko finala.

Familiantzako disko festa eta elkartasun pintxo dastatzea, Casamanceko lagunen eskutik, 18:00etan, Elkartasun Ionjan.

Bertso afaria: Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus bertsolariekin,

21:00etan, Gaztañodi elkartearen. Txartelak salgai Petite liburu dendan eta Abarketeruena jatetxean.

XXXIV. Burduntziko Bildots Txapelketan izena emateko azken eguna, Errota kultur etxean edo Udal Mediatekan. Otsailaren 17an egingo den txapelketan gehienez 50 bildots erreko dituzte, probalekuaren alboan. Izena emateko, sei euro ordaindu behar dira.

ZORNOTZA dantza

'Moor Krad' (Ertza),

20:00etan, Zornotza Aretoan.

Otsailaren 3an

ABADIÑO San Blas eguna

AZOKA: Ganadua, baserriko tresnak eta makinak, ortuariak, fruta, gazta, txakolina, ogia, eztria, artisautza eta landareak. XXXI. Abelburu erakusketa, goizean zehar.

Txistularien kalejira Txanbolin taldeagaz, 09:00etan.

Bertsolariak: Txaber Altube, Garikoitz Sarriugarte eta Bittor Altube, 12:00etan, Ferialeku plazan.

Herri kirolak: Iker Vicente, Nerea Arruti, Ugaitz Mugertza eta Karmele Gisasola, aizkoran. **Urdax Magunazelaia eta Haritz Aranguren harrijasotzen**, 12:00etan, Probalekuan.

Erromeria: Muxutruk, 17:00etan, Ferialeku plazan

Idi probak, 17:00etan. **DJ Kool, DJ Kuku & DJ Kene eta DJ Gartz**, 17:00etan, Elkartasun Ionjan.

Kontzertua: Dj Party & Tiza, 21:00etan, Txosnagunean.

Idi probak, 22:00etan. **Kontzertua: Xabi Solano**, 24:00etan, Txosnagunean.

DURANGO kontzertua

Doinuzahar abesbatza, 19:00etan, San Frantzisko elizan.

Otsailaren 4an

ABADIÑO sanblasak

Txixiburduntzia, 12:30ean, Zelaietako Herri Eskolan. **'Gezur gehiegi' ikuskizuna (Txoborro magoa)**, 16:00etan eta 18:00etan, Txanporta Kultur Etxean. Gonbidapenak eskuragarri Errota Kultur Etxean eta Udal Mediatekan (gonbidapen bi pertsonako, goitik jota). **Idi probak**, 18:00etan.

DURANGO koplak

Santa Ageda koplak abesteko hitzordua,

12:00etan, Aramotz 4-5en aurrean.

Txixiburduntzia, 18:00etan, Herria tabernaren aurrean.

DURANGO txixiburduntzia

Basokoipetsu Eguna: mendi irteera, 09:30ean, Tabirako ermitatik irtenda.

Txixiburduntzia. Sua, makilak eta edariak jai batzordeak ipiniko ditu. Izena emateko azken eguna, gaur.

IURRETA txixiburduntzia

Txixiburduntzia, 12:30ean, Aita San Migel plazan.

IURRETA koplak

Santa Ageda koplak abesteko hitzordua, 10:00etan, plazan.

ZALDIBAR txixiburduntzia

Txixiburduntzi Eguna: Ariatzura igoera, 09:30ean, Liburutegi aurrean.

Otsailaren 5ean

ABADIÑO sanblasak

Idi probak, 17:00etan eta 22:00etan. Ondoren, sari banaketa.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Otsailaren 9an

ABADIÑO sanblasak

Abadiño II. Esku Pilota Txapelketa Herrikoien finala, 19:00etan, frontoian.

ELORRIO antzerkia

'La sed del minotauro' (Khea Ziater), 20:00etan, Arriola antzokian.

IURRETA antzerkia

'Ametsen mundua' (Patata Tropikala Teatro), 17:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

ZORNOTZA pailazoak

'Ez gara jaitsiko' (Porrotx eta Marimotots), 17:15ean eta 19:15ean, Zornotza Aretoan.

Otsailaren 11n

ZORNOTZA basokoipetsu

Basokoipetsu Eguna: San Bartolome ermitara irteera, 10:00etan, Kalbariotik.

Otsailaren 2tik martxoaren 17ra

DURANGO erakusketa

'Arquetipos' (Jenni Alvarado) Arte eta Historia Museon.

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Thabo y el caso del rinoceronte**
barikua 2: 17:00
domeka 4: 17:00

:: Durango ZUGAZA ZINEMA

• **Argylle**
barikua 2: 18:00 / 21:00
zapateria 3: 18:00 / 21:00
domeka 4: 16:45 / 19:30
astelehena 5: 17:45 / 20:15
martitzena 6: 17:45 / 20:15
eguztzena 7: 19:00

• La tierra prometida

barikua 2: 18:00 / 21:00
zapateria 3: 19:00 / 21:30
domeka 4: 19:30
astelehena 5: 17:45 / 20:15
martitzena 6: 17:45 / 20:15
eguztzena 7: 19:00

• Pobres criaturas

barikua 2: 18:00
zapateria 3: 20:00
domeka 4: 19:30
astelehena 5: 17:45
martitzena 6: 17:45

• Los tres mosqueteros:

Milady
barikua 2: 21:00
zapateria 3: 17:30
domeka 4: 16:45
astelehena 5: 20:15
martitzena 6: 20:15

• Patrick: Pequeños Héroes.

Grandes Hazañas.
zapateria 3: 17:00
domeka 4: 17:00

• La cenerentola

eguztzena 7: 19:00

:: Elorrio ARRIOLA ANTZOKIA

• Valle de sombras

zapateria 3: 20:00
domeka 4: 20:00
astelehena 5: 20:00

• Wonka

zapateria 4: 17:00

:: Zornotza ZORNOTZA ARETOA

• Perfect Days

zapateria 3: 20:00
domeka 4: 20:00
astelehena 5: 20:15

• Thabo y el caso del

rinoceronte
zapateria 3: 17:00
domeka 4: 17:00

• Sobre todo de noche

martitzena 6: 20:15

Oraindik ez zara ANBOTOk whatsapp taldeko kide?

Durungaldeko azken albisteak jaso gura badituzu batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali 'ALTA'

688 635 041

telefono zenbakira

* Izan zaitetz berriemaile ere.
Bidali zure argazki eta bideoak

anboto



Maite Guevara, ezkeretik bigarrena.

“Pailazoez emozionalki delikatuak diren gaietara errazago hurbiltzeko gaitasuna dute”

'Susto' lanaren aurrestreinaldia egingo dute San Agustin kulturgunean; Maite Guevara umoregile ezagunaren lanik anbiziotsuena da udaberrian estreinatuko duten hau

ANTZERKIA • ARITZ MALDONADO

Beldurra eragin gura duten lau pailazo dira Maite Guevara komediante arabarraren Susto lan berriko protagonistak; Guevararen konpainiak eginiko lana da, orain arteko lanik anbiziotsuena. Durangoko San Agustin kulturgunean dabilza entseguak egiten, eta otsailaren 11n egingo dute aurrestreinaldia. Maite Guevara, Txefo Rodriguez, Haizea Aguila eta Joseba Uribarri dira konpainia osatzen duten pailazoak, eta Pablo Ibarluzearen eta Borja Ruiz zuzendaritzapean lan egiten dute. Estreinaldia Leioako Umorea Azokan egingo dute. Irailean aita hil zitzaion Guevarari, eta hark pailazo izateko eman zion bultzada nabarmendu gura izan du: "Berak lagundu dit hazten eta honaino heltzen".

Durangon egiten zabilzate entseguak.

Arantza Arrazolak eta biok orain urte asko ezagutzen dugu elkar, Topaklownen garaitik; hartu-eman handia dugu, eta, egia esateko, programatzaile legez ere asko babestu nau. Aurreko lana ere, *¡Ahorá!*, bertan aurkeztu nuen, eta kalean ere antzeztu dut. Lan honeguz hasi nintzenez, telefonoz deitu nion, eta lagunduko zidala esan zidan. Egutegia egiterakoan, non entseatu bilatzen ibili ginen, eta hasieran Garaion eta gero hemen entseatzeko aukera izan dugu; aste bian bertan izango gara.

Topaklownek mapan ipini zuen Durango?

Topaklown enblematikoa da eta babes handia egon da beti. Estatuan, hona etorri den jende asko ez zekien non zegoen Durango Topaklownen aurretik; kanpoko jende asko etortzen zen, eta apurka-apurka Durangoko jende gehiago etortzen hasi zen. Errotu den ekimena dela esango nuke, eta Clowningaren erreferentziatzko gune bihurtu da. Bertakoek bazekiten urteko momentu batean umorea batzen zena, barre egiteko ikuskizunak zeudena... Azokaren antzera. Klown eta Durango hurbil egon dira, baita umorista, pailazo eta antzezteleentzat ere. San Agustinek gauza asko programatzen du, Durangok antzerki eskaintza aberatsa du, eta areto legez ere oso polita da. Arantzak aukerak ematen ditu, beragaz berba egin dezakezu, aholkuak ematen dizkizu... Niretzat pertsona garrantzitsua da.

Nondik dator Susto?

Orain urte bi inguru izan nuen ideia buruan. Hasieran zirriborro bat zen, baina gerora nahiko aldatu da. Beldurrari buruz berba egiteko gogoia nuen. Nik beldur asko ditut, jende gehientsuenak lez esango nuke, baina bueno, pertsona batzuk beldurritiagoak gara edo buelta gehiago ematen dizkiegu kontu batzuei. Eta horri buruz berba egiteko gogoia nuen. Nik beldur asko izaten ditudanez, horiek gaitatzeko erronka bul-

tzakada bat izaten da askotan, eta hori positiboa da niretzat, beldur horiek gaitatzeko erronka ere gaitatzeko dudalako. Prozesuan, baina, umorea edukiko banu, prozesu horietan ez nuke hainbeste sufrituko. Horregaitik, prozesu horietan barre egin ahal izatea gustatuko litzaidake. Orain, adibidez, jendaurrean erakutsiko dugu, eta kaka eginda nago; beraz, ikasi-

Topaklown erroten ekimena dela esango nuke, eta estatuan clowningaren erreferentziatzko gune bilakatu dela

takoa praktikan ipini beharko dut eta barre apur bat ere egin beharko dut, baina beldurra hor dago. Nire hasierako ideia hori litzateke, zelan berba egin dezakegun gure beldurrei buruz, eta horietaz barre egitea; azken finean, pailazoez gaitasun hori dute, emozionalki arriskutsuak edo delikatuak diren gaietara hurbiltzeko eta horietaz barre egiteko erraztasuna dute.

Horrez gainera, Pablo Ibarluzeagaz aurreko lanerako ere lan egin nuen, baina oraino honetan


jende gehiagorik ere lan egin gura nuen. Inoiz egin dudako proiekturik anbiziotsuena ere bada. Lau aktore izan gara, zuzendari bi gara, eta lantaldea ere nabarmen hazi da beste proiektu batzuekin alderatuta.

Beldurra oso aktuala ere bada.

Bai, hala da. Polita izan da zelan sortu den prozesu guztia beldurrari buruz berba egiteko nahi horretatik. Edozer egiteko beldurra dago, arriskua dago. Kuriosoa da proiektu bat martxan ipini eta hasierako iruditik zelan zaramatzen beste norabaitera. Egin ahala, hainbat kontuk forma eman diote, eta ez da bakarrik beldurrari buruz berba egiten dela. Konpainia osatzen duten pailazoak oso hurbilekoak dira eta euren eguneroko arazoak eta antzerkigintzak eduki ditzakeen hutsuneak ikusten dira, industria arazoak adibidez.

Cia Maite Guevaran hainbeste jendegaz lan egin duzun lehenengo aldia da.

Bai, askotan lan egin dut jende gehiagorik, beste konpainia batzuentzat; Txileko zirkuan, adibidez, edo Malas Compañiaseguz, Prozak, eta beti pasatu dut ondo horrelakoetan. Normalean, bakarrik lan egiten dut. Gozatu egiten nuen, sortze lanean, antzeztekoan, eta gero ere bai. Aurrerantzean bakarrik ere egingo ditut gauzak, baina gogoia nuen taldean zeozer egiteko.



'La Sed del minotauro'

Khea Ziater konpainiak 'La sed del minotauro' taularatuko du Elorrion

Aurreko astean Bilboko Arriagan estreinatu ondoren helduko da Elorrion, otsailaren 9an

ANTZERKIA • ARITZ MALDONADO

Arriola antzokira *La sed del minotauro* antzezlana ikustera doanak 90eko hamarkadako zinemara jauzi egingo du. "Zinemagintzako eta antzerkigintzako kodeak nahastea maite dut, eta oraindino gehiago zinemakoak antzerkira ekartzea; jakina, antzerkia egiten gabiltzala ahaztu barik", azaldu du Alex Gerediaga dramaturgia arduradun eta zuzendariak. Batez ere, 90eko zinemagintza igartzen zaio lanari. "Coen anaiei eta David Lyncheri eginiko keinuak ikusi daitezke", gehitu du Gerediaga. Funtsean, maitasun istorio bat da antzezlana, maita-

sunaren bila dabilzan bost antiheroiren istorioa. "Umore ukituak ditu, baina, batez ere, drama bat da", esan du Gerediaga. Jon Ander Urresti, Ainhoa Artetxe, Leire Ucha, Arrate Etxeberría eta Txubio Fernandez de Jauregi dira aktoreak.

Entseguak, Zornotzan

Khea Ziaterreko kideak Zornotzan izan dira obra biribiltzen, gero Bilboko Arriagan estreinatzeke. Hain zuzen ere, asteburu honetan estreinatuko dute Bilboko antzoki ezagunean. Antzerki konpainiak ondu duen zortzigarren "film eszenikoa" da *La sed*

del minotauro, eta lan horietariko sei originalak direla azpimarratu du zuzendariak. Egin duten lanik "dibertigarriena" dela nabarmendu du Gerediaga berak, eta publikoak pertsonaiak "maitatuko" dituela ere. Apiriletik aurrerako emanaldietan, Miren Gaztañagak Leire Ucha ordezkatuko du. Konpainiak 2010ean hasi zuen ibilbidea, *La canción de Gloria* obragaz, eta, horren ondoren, euskarazko eta gaztelaniazko lanak kaleratu dituzte; kasu honetan ere, hizkuntza bietara moldaturiko emanaldiak dituzte. Zornotzan martxoaren 1ean taularatuko dute.

Itzalean ezkututzen dena argitzeko asmoz, 'Moor Krad'

Ertza dantza konpainiaren lana da 'Moor Krad'; Zornotza Aretoan izango da emanaldia, barikuan, 20:00etan

DANTZA • A.M.

Norberak bere bizitzan zehar pilatzen duen motxila husteari buruz berba egitea proposatzen du Ertza dantza konpainiak *Moor Krad* bere azken lanean. "Puruak jaiotzen bagara ere, gure izaeraren zein alde gordeko dugun erabakitzen igarotzen ditugu haurtzarora eta gaztaroaren zati handi bat; aurrerago, osterara, zaku hori zelan hustu asmatu ezinean igarotzen dugu", azaldu dute konpainiatik. "Funtsean, itzalean ezkututzen dugun ho-

rri buruz gabiltza", gehitu dute. Dantzarien mugimenduak doinu elektronikoez ezarritako erritmoetan oinarritzen dira, eta Iosu Yereguik zuzenean abesten du ikuskizunean zehar; Yereguik ez ezik, Valerio di Giovannik, Rafke van Houplinesek, Pilar Andresek, Denis Martinezek eta Thiago Luiz Almeidak egingo dute dantzan. Dantza garaikidea eta *crump*-en moduko dantza urbanoak uztartzen dituzte. Emanaldia Zornotza Aretoan izango da, 20:00etan hasita.



'Moor Krad'

Gai librean

Isilaraziak XIX

Aurreko astean Agustín Ibarrolaren *Papera ardatz* erakusketaren itxiera ekitaldia egin genuen Durangoko Museoan. Ibarrola artista aski ezaguna da, euskal kulturaren ikur bihurtu dena, politikarekin konprometitua eta hori guztia bere lanetan islatzen da.

Ibarrola bezala, badira beste euskal artista ospetsu batzuk, horien artean aurten 100. urteurrena ospatzen duten Chillida eta Basterretxea, eta Oteiza, Balerdi, Zumeta... Guztiak artista handiak eta ospetsuak. Baina hauen artean ez al zen emakumerik egon? Bai, noski! Egon bazeuden, baina, beti bezala, isilaraziak izan dira.

Horieta bat Maria Francisca Dapena artista izan zen. Santanderren jaiotakoa baina bere amaren sorterrira, Balmasedara, etorritakoa. Bere arte ikasketak herri horretan bertan hasi



Garazi Arrizabalaga Cabrerizo
Durangoko Museoa

Ibarrolaren grabatuak bihurtu dira 70eko hamarkadako langile mugimenduaren ikur, baina Dapenarenak ezkutuan geratu direlako

zituen eta etengabeko hezkuntza jaso zuen, bai museoak bisitatzen bai beste artista batzuen harremanarekin. Berekin batera lanean aritu zen artista bat, hain justu, Agustín Ibarrola izan zen. Honekin batera Estampa Popular izeneko arte taldea sortu zuen. Dapena bere etxean bilera antifrankistak antolatzen zituen garaiko intelektualekin; besteak beste, aipatutako Ibarrola, Blas de Otero, Gabriel Aresti eta Gabriel Celaya idazle, artista eta filosofoekin.

Dapenaren lanek garaiko ezinegon politiko hori islatzen dute. Sufrimendua, beldurra, atsekabetasuna. Baina

ideia negatibo guztien gainetik nola baiteko goxotasuna ere transmititzen dute lanek. Olio erabili bazuen ere, bere lanik aipagarrienak, nire ustez, grabatuak izan ziren. Ibarrolaren grabatuak bihurtu dira 70eko hamarkadako langile mugimenduaren ikur, baina Dapenarenak ezkutuan geratu direlako; izan ere, sekulako indarra dute bere lanek. Lerro gordinak, kontrastez beteak. Kasu batzuetan emakumeak dira protagonistak irudi hauetan, berritzailea guztiz.

Kartzelan eman zituen urte batzuk, bere ideologia antifrankista zela eta. Garai horretan bizitako pasarte latzak *Señor Juez* liburuan ezagutzera eman zituen. Izan ere, idazlea ere bazen. Idazketaren eta artearen artean paralelismoa egin dezakegu. Era xamurrean adierazten dituelako bizipen gordinak. Isilaraziak izan diren garrasi iraultzaileak.



Aingeru Bernaola
Oliden

Pilotaria

MAÑARIA I 2004

“Txapelketa inportanteak jokatzeko gonbidapenak jasotzeak beste animo eta motibazio bat ematen dizu”

2023a Aingeru Bernaolaren urterik onena izan da. Hainbat final jokatu du; tartean, Abanca-Diario Vasco txapelketa

PILOTA • JOSEBA DERTEANO

Gorakada egin du eta ez da oharkabean pasatu. Txapelketa inportanteak jokatzeko deitu zioten iaz, eta maila ona eman zuen. Bide beretik hasi du aurtengo denboraldia. Lezamako txapelketako finalerdietan dago eta Espainiako txapelketa jokatzeko ere badabil.

Iazko goiburuetariko bat Abanca-Diario Vasco txapelketa izan zenuen. Behe-behetik hasita, afizionatu mailako torneorik prestigioetsuenetarikoan finalera heldu zinen Iker Egigurenegaz.

Ez genuen finalera heltzea espero. Behe-behetik hasita, ez geneukan inongo presiorik. Partidurik partidu joan ginen eta ondo irten zitzaigun. Gainera, aurretik Antiguoko txapelketan batera jokatuta, elkar ondo ulertu genuen Egigurenek eta biok. Finala irabaztea falta izan zitzaigun, baina oso pozik gaude eginiko lanagaz. **Garrantzitsua da bikotekideagaz kimika ona izatea.** Bai. Antiguoko txapelketara arte

elkarregaz jokatu barik geunden, eta elkarren kontra ere behin bakarrik. Ez genuen elkar ezagutzen. Eta, egia esanda, hasiera-hasieratik elkar oso ondo ulertu genuen. Gustura aritu ginen.

Eta, orokorrean, zelan joan zen iazko urtea?

Nire urterik onena izan zela esango nuke. Errenteriako, Antiguoko eta Berriobeitiko finalak ere jokatu nituen eta Zornotzako eta Getariako jaietako txapelketak irabazi nituen. Gainera, toki nahikotxotik jaso nituen txapelketak jokatzeko gonbidapenak.

Zer poz eman behar duen gonbidapenak heltzen direnean...

Benetan be. Begira, orain urte bi Zumaiakoa eta beste gonbidapen gutxi gehiago izan nituen. Iaz, ostera, deitu eta deitu ibili ziren. Pozgarria da. Txapelketa inportanteak jokatzeko gonbidapenak jasotzeak beste animo eta motibazio bat ematen dizu eta partidu hobeak jokatzeko dituzu.

Pilotari lez zeintzuk dira zure indarguneak eta zertan hobetu zenezake?

Indarguneen artean, aurrean tantoak amaitzeko gaitasuna aipatuko nuke, dejadekin, moztuta... Aurrelariak ez du espero horrelakorik. Beste aldean, kolpe apur bat falta zaidala esango nuke. Ez naiz oso jotzailea. Gehiago naiz pilotari segurua, tantoei eusten diena.

Berbagai ditugun txapelketak binakakoak dira. Buruz burukoari buruz zer diostazu? Gustuko duzu?

Bai, gustuko dudun modalitatea da. Gazte mailan, urte batean Bizkaiko txapeldun geratu nintzen binaka zein buruz buru, eta lau eta erdian txapeldunordea izan nintzen. Ez da hain ohikoa atzelari buruz buru jokatzeko deitzea, baina niri Zornotzako Master Kaiola eta Amezketa txapelketak jokatzeko deitu izan didate eta poza ematen du.

Zelakoak dira zure entrenamenduak?

Mañarian entrenatzen naiz, astean birritan gutxienez, eta gainerakoetan entrenamendu fisikoa egiten dut. Normalean pilota gozoagaz entrenatzen naiz, baka-

rrik aritzen naizelako. Federazioak Miribillako entrenamenduetara deitzen duenean haietara joaten naiz. Bizkaiko onenetarikoak batzen dira han: Carregal, Barturen, Bilbao, Eguren... Ondo datozkit horrelako entrenamenduak.

Aitor anaia pilotari ohia duzu. Orain ez dabil Mañariko pilota eskolan, baina lehen beragaz entrenatzen zinen. Bere falta igartzen duzu?

Bai, jakina. Orain batek irabazi, gero besteak... Pike sanoa geneukan. Niri oso ondo etorri zait beragaz entrenatzea. Horri eskerrak nabarmen egin nuen gora.

Mañarian entrenatzen zara, baina Munitibarko pilota klubean zabilta. Zergaitik?

Gazteagotan ez zegoen nire adineko inor Mañarian jokatzeko, eta mugitu egin behar izan nuen. Iurretara joan nintzen lehenengo. Urtebeteren ondoren, han ere bikotekide barik geratu nintzen. Munitibarren beste bat aurkitu nuen eta elkarregaz jokatzeko hasi ginen. Horregaitik nabil han.

Munitibarko eskola indartsua da?

Bai, une onean dagoela esango nuke, baina lehenago jende gehiago zebilen. Baina, tira, pilota mundua bera ez dago bere momenturik onenean.

Ez zara iritzi hori duen bakarra. Mundu hori barrutik ezagutzen duzula, zer aje ikusten dizkiozu afizionatu mailako pilotari?

Partidu askotan pilotarien gurasoak baino ez dira egoten harmailetan. Partiduak lau-bost lagunen aurrean bakarrik jokatzea... Lehenago jende gehiago batzen zen frontoian, beste giro bat egoten zen. Afizioa falta da. Ez dakit mundua aldatu den ala zer den, baina ez da berdina. Egia esan, aspaldian nire inguruan jendea zeozertxo gehiago entzuten dut pilotari buruz berba egiten, eta horrek asko pozten nau, baina galdu dugun hori

Partidu askotan pilotarien gurasoak baino ez dira egoten harmailetan. Afizioa falta da. Lehenago beste giro bat egoten zen

berreskuratzeko oraindino falta dela ikusten dut.

Zelan ikusten duzu pilota eskolen egoera? Herri txiki batzuetan estu dabilta, eta handiagoak diren beste batzuetan, Durangon kasu, ume dezente dabilta.

Bai, baina askok eskolaz kanpoko ekintza lez baino ez dute hartzen pilota. Denborapasa baten parekoa da. Ez dator afiziotik edo umeak barru-barrutik gura duen zeozer delako. Eta arazo hori adin batetik aurrera azaleratzen da. Pilota eta futbola aukeratu behar dutenean, futbola aukeratzeko dute. Baina ez Durangon bakarrik, alde guztietan baino. Herri txikiak apur bat libratzen dira beharbada, baina haietan ere adin batetik aurrera... futbolera. Mañarian 20 bat ume dabilta orain, eta ea ba, eurekin lan egin da urte askoan geratzen diren.

Mallabian pilota eskolak gora egin du Aitor Elordiren arrakastagaz batera.

Horrelako erreferenteak inportanteak dira. Jendeak frontoian ezagutzen du, zaletasuna pitzen da...

Eguren batean beharbada zeuk erakarriko dituzu umeak Mañarira.

Horretarako profesionaletara heldu behar da lehenengo!

Posible ikusten duzu?

Nik lanean gogor jarraituko dut eta ikusiko da.

Bost urteren ondoren, Urkiola eliteko txirrindularitzara bueltatuko da Itzulian

Emakumeen Biran igo zen azkenekoz, 2018an; gizonetan, ostera, Espainiako Itzulian, 2011n



Gasteizen hasi eta Zornotzan amaituko den etaparen barruan igoko dute Urkiola.

TXIRRINDULARITZA • JOSEBA DERTEANO
Txirrindularitzako lasterketa ofizial bat Urkiola mendatetik igaroko da aurten, aspaldiko partez. Itzuliko azken-aurreko etapan izango da, apirilaren 5ean.

Saso batean, urteroko hitzordua zen Urkiolako Igoera. Sona handiko proba hura orain 15 urte desagertu zen, 2009an, arrazoi ekonomikoengaitik. Urte hartan bertan, Euskal Herriko Itzulian ere igo zuten mendatea, Eibarren hasi eta Gueñesen amaitu zen laugarren etaparen hasieran. Handik urte bira, 2011n, Espainiako Vuel-

Saso batean urteroko hitzordua zen Urkiolako Igoera; 2009an antolatu zuten azkenekoz

tako etapa bat igaro zen Urkiolatik, Bilbon hasi eta Gasteizen amaitu zena. Gizonetan orduantxe igo zuten azkenekoz lasterketa profesional batean. Emakumeetan, 2018ko Emakumeen Bira birritan igaro zen Urkiolatik: alde gogorretik lehenengo, eta bigunetik gero, Otxandio aldetik. Zirkuitu profesio-

sionaletik kanpora, BIBE Transbizkaia martxak urtero ekartzen du Urkiola lehenengo planora 2016tik hona.

Itzuliko etapa

Apirilaren 5eko etapa Gasteizen hasi eta Zornotzan amaituko da. Lemoatik sartuko dira Durangaldean. Zornotza igaro eta Mañarirantz joko dute. Bertatik igoko dute Urkiola. Otxandiotik Dimarantz joango dira eta zirkuitu batean sartuko da lasterketa. Zornotzako helmugara heldu aurretik, Muni-keta igoko dute, birritan.

“Urkiola sekula ere ez dut igo lasterketa batean eta ilusio berezia egiten dit”

Urkiolatik eta Mikel Bizkarraren sorterritik igaroko da Itzulia



Mikel Bizkarra
Etxegibel
MAÑARIA | 1989

Aurtengo Itzulia Mañaritik eta Urkiolatik igaroko da eta, normala den moduan, etxeko txirrindulari Mikel Bizkarra asko poztu zen ibilbidearen berri jakin zuenean.

Inoiz igo duzu Urkiola lasterketa batean?

Ez, Urkiola sekula ere ez dut igo lasterketa batean. Eta Mañaritik ere sekula ez naiz pasatu lasterketa batean. Ez profesionaletan ez afizionatuetan. Saso batean, Mañaritik afizionatu mailako lasterketa bat egiten zen eta Urkiola igotzen zen. Ni afizionatuetara heldu nintzenerako ibilbidea aldatu eta Urkiola kendu zuten. Eta Urkiolako Igoera ni profesionaletara heldu aurretik desagertu zen. Beti gura izan dut igo, baina ez da suertatu. Oso gustuko dudan mendatea da.

Joan zen barikuan aurkeztu zuten Itzuliko ibilbidea. Orduantxe jakin zuten lasterketa zure sorterritik eta Urkiolatik igaroko zela?

Bai, ordura arte ez nekien ezer. Ilusio berezia egiten zidan. Hainbesteko prestigioa duen proba bat zure herritik pasatzeak poz itzela ematen dit.

Beraz, orain arte zale modura gozatu dituzu Mañaritik eta Urkiolatik igarotako lasterketak.

Bai. Urkiolako Igoerara urtero joaten nintzen eta oso gomuta onak ditut. Emakumeen Bira eta Itzuliko beste etapa bat Urkiolatik igaro zirenean ere hantxe egon nintzen ikusten eta txirrindulariak animatzen.

Aurtengo Itzuliko etapa horretako ibilbideak zuretzat aproposa dirudi: Urkiola, Muni-keta birritan...

Itzuliko etapa guztiak izaten dira gogorak. Egia esanda, Urkiola etapa amaieratik urrun geratzen da, baina gero Muni-ketako igoera biak ere hor daude... Ikusiko dugu, etapa gogorra izango da. Orokorrean, Itzuli gogorra izango da. Ibilbideari dagokionez, aurten 'tranpa' gutxiago dagoela azpimarratuko nuke. Azken urteetan bide estuak igaro izan ditugu, eta jaitziera arriskutsuren bat edo beste. Askok eskertzen dut horrelakorik ez egotea.

Jokaldia

Emakumeen errugbiaren hasierak

Iaz errugbiak 200 urte bete bazituen ere, hamarkada askotan, errugbiaren matxismo tradizionalak baztertu egin zuen emakumeak zelaian egotea. Hasieratik, arduradunek eta agintariek uste zuten kirol hau gogorregia zela andreentzat. Hala ere, neskak 1970eko hamarkadan agertu ziren eta, gizonezkoek serio hartzen ez zituzten arren, klubak sortu ziren hastapen horietan Britainia Handian. Lehen bultzada neska britainiarrek eman bazuten ere, iparramerikarrak izan ziren bizkorren hazi zirenak. 80ko hamarkadan 300 klub inguru zeuden Ipar Amerikan, batez ere AEBetan, gutxi baitziren Kanadakoak.

Hastapenetara bueltatuz, historialariek gogoratzen dute emakume batzuek partidak antolatu zituztela XIX. men-



Gotzon Gomez Barrenetxea
Errugbia

Benetako lehen dokumentua, emakumezkoen errugbi talde baten eraketa zehazten duena, 1891koa da

Hego Euskal Herriko klubetan emakumeen taldeak sortu ziren; besteak beste, Durangon eta Elorri

dean. Erregistroen arabera, Irlandan egin zen emakumezkoen errugbia lehen aldiz. 1884an gertatu zen, Emily Valentine izeneko neska baten bultzadagatik.

Benetako lehen dokumentua, emakumezkoen errugbi talde baten eraketa zehazten duena, 1891koa da. Zeelanda Berriko jokalaritza talde bat Ingalaterrara

eramateko asmoa zegoen, baina proiektua zapuztu egin zen. Zergatik? Gizonezkoen protesta eta oposizioagatik.

Espainiari dagokionez, 70eko hamarkadan Unibertsitateko ikasleen arteko lagunarteko partidak jokatzen zirela frogatzen duten erreferentziak ditugu. Gaur egungo Iberdrola Ligak (emakumezkoen Ohorezko Maila) 1989an du jatorria.

Hego Euskal Herrian ere hainbat klubetan emakumezkoen taldeak sortu ziren; besteak beste, Gernikan (1987) Getxon (1989), Durangon (1989), Elorri eta Gasteizen. 1989-1990 denboraldian hasiera eman zioten emakumezkoen lehen euskal ligari Durango, Elorrio, Gaztedi, Getxo, eta Gernika taldeek. Geroztik gauzak asko aldatu dira eta emakumezkoen errugbiak sekulako hazkundera izan du.

DURANGALDE

Baserritarren erakusleioa

San Blas Azoka aspaldiko tradizioaren isla da. 1915ean Indalecio Ojangurenek ateratako argazki honetan, sasoi hartako azokako momentu batean ateratako irudia ikusten da. Gaur egungo azokan egokitzen diren karpa eta postu eroso barrik, abereak jende artean agertzen dira.



KO TXOKOAK!



Behinolako San Blasetako erromeria

Sare sozial, telebista eta aparteko entretenimendurik ez zegoen sasoieta, erromeriak sozializatorako espazioak izaten ziren. San Blas jai hauetan Txanporta plazaren erdian eta alde batean trikitilariak gurdira igota ikusten dira. Haien doinuen erritmora dantzatzen zutenentzat egun handia izaten zen.

INAUTERIE TAKO ARGAZKI LEHIAKETA 2024

*Igo zure argazkia
otsailak 9tik 15era
bitartean*

Webgunean botorik gehien
jasotzen duen argazkiaren
egileak
Errigora-ren otzara
bat irabaziko du

 anboto

*Oinarriak anboto.org webgunean





Botikak

BARIKUA, 2 · 09:00-09:00
NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO
MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
ZAPATUA, 3 · 09:00-09:00
ETXEBARRIA, MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
09:00-13:30
NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO
BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO
GAZTELUMENDI, J.A. ABASOLO 2 - DURANGO
SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO
CAMPILLO, MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO
DE DIEGO, INTXAURRONGO 22. - DURANGO
BALENCIAGA, EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO
LARRAÑAGA-BALENTZIAGA, BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO
MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA
RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA
GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA
09:00-14:00
IRIGOIEN, BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA
09:00-22:00
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 4 · 09:00-09:00
BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
ASTELEHENA, 5 · 09:00-09:00
DE DIEGO, INTXAURRONGO 22. - DURANGO
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
MARTITZENA, 6 · 09:00-09:00
SAGASTIZABAL, ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
EGUAZTENA, 7 · 09:00-09:00
MUGICA, ANDRA MARIA 9 - DURANGO
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
EGUENA, 8 · 09:00-09:00
ETXEBARRIA, MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak


ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEN 14:00AK ARTEKO EPEA

Zorionak, **Markel eta Ane** (965. alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia
gozaturgozotegia



Zorionak, **June!** Otsailaren 1ean 8 urte egingo dozuz; primeran pasatu eta jarraitu holakoxe neskatila maripertxenta izaten. Milaka patxo gozo etxeko danon partez!



Zorionak, bikote! Urtarrilaren 24an **Elenek** 10 urte egin zituen eta otsailaren 2an **Oinatzek** 12 urte. Segi horren alai. Mosu potolo bana zuen guraso eta familia guztiaren partetik.



Otsailaren 4an gure bizilagun **Vanessa Galvanen** urtebetetze eguna da. Bizitzak irrifar batekin har zaitzala beti!

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 7° / 18° ☀️

ASTELEHENA ↓ 6° / 17° ☁️

EGUAZTENA ↓ 7° / 15° ☁️

DOMEKA ↓ 7° / 18° ☀️

MARTITZENA ↓ 7° / 15° ☁️

EGUENA ↓ 9° / 17° ☁️

Durangaldean ostalaritzarekin, zerikusia duen negozioirik baduzu,

JARRI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTON

Informazio gehiago **94 621 79 02** telefono zenbakian

"Herriarentzat izanik, denok dantzatzeko modukoa behar zuen Surrandien Dantzak"

Jaione Fernandez de Retana Kriskitin dantza taldeko kidea konpartsa sortu zenetik irten da Surrandien kalejiran. Otsailaren 10ean ere ez du hutsik egingo. Merkatu plazan ipini dute ordua, 18:00etan, kalejirari ekiteko

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Aurten 25 urte bete dira Kriskitin dantza taldeak Surrandien Konpartsa sortu zuela, eta, urteurrena ospatzeko, Surrandien Dantza plazaratuko dute lehenengoz. Jose Mari Bastidak sortu du musika, eta Jaione Martinez de Retanak eta Oier Sarobek ipini diote koreografia, Aritz Lasargurenen laguntzagaz. Oraindino badago aukera ikasteko: domekan, 12:00etan, Kriskitinek Markatu Plazan duen lokalean. Surrandiek Tabira musika bandagaz eta Jaizaleko txistulariekin irtengo dute, Hartza lagun dutela.

Zelan doaz prestaketak?

Gabon aurretik hasi ginen lanean. Izan ere, urte berezia dugu hau, 25 urte beteko direlako Surrandien Konpartsa sortu zela, eta, urteurrena ospatzeko, Surrandien Dantza sortu dugu.

Zelan sortu zen ideia?

Badugu ezaguna den gure doinua, gure kanta. Pauso batzuk ere ipini genizkion 20. urteurrenean, baina beti igarri dugu dantza baten falta. Saiakerak egin diren arren ez da lortu, doinua apur bat konplikatu delako herritarrek dantzatu behar dituzten pausoak sortzeko. Baina beharrezko ikusten genuen Surrandien Dantza sortzea, eta Marisa Barrenak eta Juan Antonio Aromak dena martxan ipini eta Jose Mari Bastidari pieza berri bat sortzeko eskaria egin zioten. Ondoren, pausoekin hasi ginen.

Zer hartu duzue kontuan?

Batetik, doinuak barruan eragiten diguna. Horixe delako Surrandia. Maskara ipinita, abarkak jantzita eta arranak eskuetan, gu desagertu eta gure surrandi izaera agertzen da. Horrek emandako indarragaz egiten duguna islatu gura izan dugu. Bestetik, gureak, Durangaldekoak diren pausoak erabiltzen ahalegindu gara. Erraz irten zen dena.



Jaione Fernandez de Retana Arrasate

Kriskitin dantza taldeko kidea

DURANGO | 1985

Edonork dantzatu dezake?

Bai, herriarentzako dantza izanik, denok dantzatzeko modukoa izan behar zuen, eta dantza erraza egiten ahalegindu gara, edonork dantzatu ahal izateko. Jendeak gogotsu hartu du, baina ikasteko ardura apur batezagaz. Bideoa zabaldu dugu Youtubean, ikasteko, baina dantza tailerra ere antolatu dugu.

Inauterizalea zara?

Surrandizalea naiz. Konpartsa sortuberri sartu nintzen ni, eta, urteak aurrera, geroago eta gehiago gozatu izan dut. Gureak, Euskal Herriko inauteriak gustatzen zaizkit, magia itzela dute. Baina ez ditugu ezagutzen. Ezagutu ahala hainbat gauzaren jatorriaz

Gazteengana zuzendu gura dugu, maskara ipini eta transformatu daitezela, disfrutatu dezatela

ohartzaren zara, eta horrek gure sustraietara eramaten gaitu. Horrek plazer handia ematen dit, eta zenbat eta gehiago ikasi orduan gehiago jakin gura dut.

Surrandiak geroago eta errotuago daude Durangon.

Urterik urte ibili gara eta ondo egindako gauzek fruitua ematen dute. Gainera, pandemiaren

ondoren aldaketa handia egon da, asko zabaldu dira. Orduan, elkartzeko gogo handia zegoen, zerbaiten parte izateko gogo, eta Surrandietan nabarmen igarri zen. Harrera itzela izan zuten, eta oraindino badute. Konpartsak 150 bat lagun batzen ditu.

Beste ezer gehitu gura zenuke?

Pandemiaren ondoren, batez ere nagusiei egin genien parte hartzeko deia. Eurek erakutsi digute dakiguna, berreskuratze lan guztia euren da, eta haiengandik gaude hemen. Orain, gazteengana zuzendu gura dugu, maskara ipini eta transformatu daitezela, disfrutatu dezatela. Surrandiak basatiak eta zirikatzaileak dira. Zoramena dira!

Lauhortza

Markel Onaindia
Txabarri
Kazetaria



Rogelio Marcelo Garciarekin Habanan

Habana zaharreko taberna batean geunden, iazko otsaileko arrasti bero batez, Havana Fresh koktelarekin freskatu guran. Tertulian ari ginen, lasai. Halako batean, gizon kubatar bat hurreratu zitzaigun, euli baten eran, besoekin keinu arraroak eginez. "Kaixo, Rogelio Marcelo Garcia naiz, boxeolaria, 1992ko Bartzelonako olinpiadetan urrezko domina irabazi zuena". Kontxo, eminentzia bat genuen parean. Urteekin zimurtua eta argaldua, nonbait. Bere batailak kontatzen ibili zen tarte dibertigarri batez; esaldiak ezustean jaurtitzen zituen, crochetaren antzera. "Hermanos, wikipedian agertzen naiz, begira ezazue han, sinesten ez badidazue", ohartarazi gintuen tabernatik ateratzen ari ginela. Beste turista batzuekin argazkiak ateratzen laga genuen Rogelio Marcelo Garcia famatua.

Ostatura heltzean, gutako bat wikipedian sartu zen, mesfidati; kubatarren bizimodua hain baita lausoa, ya tu sabes. Eta, hara! Rogelio Marcelo Garcia benetakoa zen, bai, 1992ko olinpiadetan txapeldun izan zen minieuli pisuan. Ez sinestekoa! Baina, ilusio zaputza gurea, argazkia ikusi genuenean. Tabernako lagunak ez zuen egiazko boxeolariaren antzik, ezta hurrik eman ere. A zelako barreak geure artean.

Dena dela, paper hura hain bestetan antzezturik, azkenerrako sinistu egin zuela esango nuke. Eta nor gara gu inori nor den esateko?


Gaur Kandelario, laster ditugu inauteriak. Beste norbait izan guran mozorrotuko gara. Nik, akaso, Rogelio Marcelo Garcia naizela esango dut, boxeolari kubatar handia.



SAN ROKE BARRIA

**ETXEBIZITZA AUKERA ZABALA
3 LOGELA
295.000€ -TIK +BEZ**

ERAIKUNTZA LANAK HASITA



Salmenta bulegoa
Astxiki kalea 1, Durango

946 462 041
www.sukia.com

sukia
Zure etxean zaude Estás en tu casa